

---

# KULTURA PLANA

# 19/ 22

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

KULTURA SAILBURUORDETZA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

---



|           |  |         |           |  |         |
|-----------|--|---------|-----------|--|---------|
| <b>1.</b> | <b>KULTURA PLANA - 2019-2022</b>   | 4. or.  | <b>4.</b> | <b>HELBURU ETA KONPROMISO ESTRATEGIKOAK</b>  | 17. or. |
| 1.1.      | <b>TXOSTENAREN HELBURUAK</b><br>Ikuspegi estrategikoa<br>Ikuspegi komunikatiboa<br>Ikuspegi propositiboa                                 |         | 4.1.      | <b>HELBURU ESTRATEGIKOAK</b>   |         |
| 1.2.      | <b>PLANAREN EZAUGARRIAK</b><br>Irekia<br>Egingarria<br>Aurrera begirakoa   |         | 4.2.      | <b>KONPROMISO ESTRATEGIKOAK</b>  |         |
| <b>2.</b> | <b>KULTURA ETA KULTUR POLITIKAK</b>  | 6. or.  | 4.3.      | <b>KONPROMISOAK ETA PROGRAMA</b><br>Gobernu programa<br>Legealdiko 7 konpromisoak<br>Programak: konparazio taula   |         |
| 2.1.      | <b>KULTURAREN GARRANTZIA</b><br>Kultura, gizarte gaia<br>Kultura sektore profesional modura<br>Eraldaketa prozesu betean dagoen sektorea |         | 4.4.      | <b>KONPROMISOAK ETA EKIMENAK</b>   |         |
| 2.2.      | <b>KULTURA EUSKADIN</b><br>Indarguneak<br>Ahultasunak  |         | 4.5.      | <b>KONPROMISOAK eta EKIMENAK (Taulak)</b>  |         |
| 2.3.      | <b>KULTURA: EKOSISTEMA BAT</b><br>Ekimen publikoaren garrantzia<br>Kultura euskaraz  |         | 4.6.      | <b>KONPROMISOAK, EKIMENAK eta EKINTZAK (Taulak)</b>  |         |
| 2.4.      | <b>KULTUR POLITIKAREN EZAUGARRI NAGUSIAK</b><br>Gertutasuna<br>Erantzunkidetasuna<br>Jarraitutasuna<br>Osotasuna<br>Objektibotasuna      |         | <b>5.</b> | <b>LAN ILDO NAGUSIAK - 2019-2022</b>   | 28. or. |
| <b>3.</b> | <b>KULTUR POLITIKAK: HIRU AZPISISTEMA</b>  | 11. or. | 5.1.      | <b>SORKUNTZA ETA EKOIZPENA</b><br>Sortzaileen lan baldintzak hobetu<br>Ikus-entzunezkoen goraldiari erantzun<br>Nazioartekotasuna bultzatu<br>Euskal kulturaren ikusgarritasuna areagotu<br>Berrikuntza sustatuz, kultura eta sormen industriak sendotu  |         |
| 3.1.      | <b>DEFINIZIOA</b><br>Sorkuntza eta Ekoizpena<br>Kultur eskaintza<br>Memoria bizia  |         | 5.2.      | <b>KULTUR ESKAINTZA</b><br>eLiburutegiaren eskaintza hobetu eta hedatu<br>Museoen euskal sistema indartu<br>Euskadiko Orkestra Sinfonikoa nazioartekotu<br>Euskal Herriko Gazte Orkestra eraberritu  |         |
| 3.2.      | <b>OSAGARRITASUNA, ELKAR ERAGINTZA, OREKA</b>  |         | 5.3.      | <b>MEMORIA BIZIA</b><br>Legedia eta araudia berritu<br>Kultura ondarearen babesa zabaltu<br>Ondare immaterialaren babeserako politika bereziak abiarazi<br>Euskadiko Filmategia sendotu<br>Arte eszenikoen (antzerkia eta dantza) gordailu digitala sortu<br>Euskal Liburutegia (euskal kulturaren liburutegi digitala) eraiki |         |
| 3.3.      | <b>BI ARDATZ NAGUSI</b><br>Hizkuntza berdintasuna<br>Genero berdintasuna   |         | 5.4.      | <b>GOBERNANTZA</b>   |         |
| 3.4.      | <b>GOBERNANTZA</b>   |         | 5.5.      | <b>KONPROMISOAK, EKIMENAK, EKINTZAK</b>  |         |
| 3.5.      | <b>HARREMAN PUBLIKO-PRIBATUA</b>   |         | <b>6.</b> | <b>ERANSKINAK</b>  | 40. or. |
| 3.6.      | <b>LAN ILDO NAGUSIAK</b>   |         |           |  |         |

**1/**

**Kultura  
Plana  
2019/2022**

---

## 1.1./

# TXOSTENAREN HELBURUAK

Txosten honen helburuak hiru alderdi ditu, hiru ikuspegi: estrategikoa, komunikatiboa eta propositiboa.

## Estrategikoa

Txosten honen lehen helburua hurrengo lau urteetarako (2019-2022) kultur politiken ildo nagusiak zehaztea da, bi legealdiren arteko zubia eginez, kultur politiken koherentzia eta jarraikortasuna bermatzeko.

Planean, estrategia nagusiak definitzen dira eta, horien baitan, datozen urteetarako konpromisoak, ildo estrategikoak, ekimenak eta ekintzak proposatzen dira.

## Komunikatiboa

Egiten dugunaren arrazoiak eta barne-koherentzia agerian jartzea, hau da, egungo kultur politikak ordenaturik esplikatzeko, kultur politiken arrazoiak, zioak eta barne koherentzia agerian jartzea txosten honen helburu dira baita ere. Hurrengo urteetarako konpromisoak eta proposamenak orain lantzen ditugun kultur politiketan txertatuta daude. Kultur politiken kontakizun ordenatua ezinbestezkoa da, gainera, kultur politiken kritika eta eztabaidarako.

## Propositiboa

Hemen proposatzen diren lan ildoek konpromiso ekonomikoa dakarte beraiekin. Hurrengo urteetarako aurreikusten diren konpromisoen eragin ekonomikoa zehazten da txosten honetan, aurrekontuen hazkundera proposatuz eta arrazoituz.

## 1.2./

# PLANAREN EZAUGARRIAK

## Irekia

Plan honek irekia izan behar du, nahitaez. Gizartearen alderdi guztietan gertatzen ari den aldakuntza areagotu eta bizkortu egingo da hurrengo urteetan. Aldakuntza horren baitan murgilduta dago kultura ere. Beraz, kultura planak malgua eta irekia izan behar du, egoera eta desafio berriei egokituko bazaie.

Plan honen helburua Jaurlaritzaren hurrengo urteetako lan ildo nagusiak azaltzea da. Baina Gobernu barruko eztabaidaz gain, Kultura Sailburuordetzak dituen beste foroetan ere aurkeztu eta eztabaidatuko da. Eztabaidatik eratorritako ekarpenari irekia dago txosten hau.

## Egingarria

Proposamen zehatzak egiten dira plan honetan, zehaztasuna baita egingarritasunerako lehen baldintza. Dauxkagun eta izan genitzakeen baliabideen kontzientzia argia behar beharrezkoa da proposamen errealistak egiteko, bai denboraren eta bai baliabide ekonomikoen aldetik.

## Aurrera begirakoa

Kultura planaren denbora-bitartea 2019-2022 da. Epea mugatua da, planak egingarria izan nahi duelako eta, beraz, aurre ikus daitekeen tarte batean jokatu behar dugulako.

Lau urte hauetarako planak bi legealdi hartzen ditu -XI.aren amaiera eta XII.aren hasiera-, bi legealdien arteko jarraikortasun koherentea lortu nahi delako.

2/

# Kultura eta kultur politikak

---

## 2.1./

**KULTURAREN  
GARRANTZIA****Kultura, gizarte  
gaia**

Kultura giltzarria da komunitate baten eraketan eta gizarte kohesioan. Kulturaren eremuan eraikitzen eta berreraikitzen da gizarte baten espazio sinbolikoa. Bertan entseatzen dira gizaki izatearen zentzuaren inguruko galde-erantzunak historiaren une bakoitzean. Hortaz, bertan lantzen da gizaki izaten jarraitzearen esanahia.

Beste inolako eremutan ez bezala, kulturari jokatzeko da hizkuntzari, kulturari eta nortasunari dagokienean, konplexua den komunitate baten biziraupena. Hizkuntza propioa duen gizarte elebidunak (eta eleanitzak) kultur arloan berebiziko erronka du aurrez aurre bere hizkuntza eta kultura bizirik gorde nahi baditu eta, aldi berean, mundu garaikidean bere kulturaren konplexutasuna defendatu nahi baditu.

Oinarrizkoa da geure istorio propioak geure hizkuntza propioan kontatzeko gai izatea. Maila politikoan, kulturalean eta linguistikoan irauteko bokazioa duen herriak ezin dio uko egin literatura, arte eszeniko, zinemagintza eta musika-eszena propioak izateari.

Zentzu horretan, kultura garrantzizko kontua da gizarte osoarentzat, nola edo hala, indar gehiagoz edo gutxiagoz pertsona ororen eta komunitate osoaren bizitzara iristen den jardura baita.

**Kultura sektore  
profesional modura**

Pertsonen eta herrien garapenean funtsezko esparrua izateaz gain, kultura jardura sektore bat da, bizia eta dinamikoa. Kulturak gizartearekiko berebiziko garrantzia du gizarte kohesiorako faktore den heinean, eta gero eta nabarmenagoa da horren eragin ekonomikoa.

Kultura sektore produktiboa da. Kulturaren ehuna osatzen duten agenteek –norbanako, elkarte, erakunde edo enpresa– trebetasun, espezializazio eta profesionaltasun maila handiak dituzte. Prekaritate maila handia, baita ere, askotan edo gehiegitan. Merkatuetan biziraun behar du kulturak ere, produktuen merkatuan, arretaren merkatuan eta sinboloenean.

Baina kulturaren garapena ezin da merkatu hutsaren menpe utzi. Gizarte batek bere buruaz etengabeko gogoeta egiteko duen gaitasuna, bere kezkei etengabe forma emateko trebetasuna, bere buruarekiko kritikoa izateko ausardia ez dira hutsik termino ekonomikotan neurtzen. Eredu publikoak ziurtatu behar du berritasunagatik, berezko zailtasunagatik edo hizkuntzaren egoeragatik merkatuaren arauen arabera onuragarri izango ez diren kultur emaitzak babestea, sustatzea eta ahalbidetzea. Ekimen publikoak bermatu behar du herri baten ekoizpen sinbolikoa etengabe garatzea eta biziberritzea.

**Eraldaketa prozesu  
betean dagoen  
sektorea**

Gure gizarteek bizi duten aldaketa (edo mutazioa) aldaketa kulturala da lehenik eta behin. Eraldaketa horrek arrazoibideen eta narratiben ekoizpenarekiko du eragina, eta baita horien banakuntza eta kontsumoarekiko. Kultur tresnek (sormena, lengoaiaren erabilpena, komunikazioaren garrantzia, irudien eragina eta abar) izugarriko garrantzia dute egun bizitzaren alor guztietan, kulturatik harago joanda, politikatik hasi eta ekonomiara.

Aldi berean, kultur elkartrukeek dirutan duten balioa nagusitu da diskurtso orokorrean, berez kulturari dagozkion balioak edo berehalako etekin ekonomikoarekiko duen autonomia erlatibizatuz eta zalantzan jarritz.

Bizi dugun mutazioak kultura ekoizteko moduekiko, kultur ohiturekiko eta kultur industriaren negozio ereduarekiko du eragina.

Esparru berri baten agerpena, kultur sektorea eta “sorkuntza sektorea” uztartzen dituen korrante berri batek definitutako esparruarena, alegia, aldaketa beste eragileetariko bat dugu.



## 2.2./ KULTURA EUSKADIN

Kulturaren eremua sorkuntza, artea, ondarea, eta kultur industriak hartzetik "sorkuntza industriak" deiturikoak biltzeraino hedatu da; hartara, barnean hartzen ditu komunikazio digitala, arkitektura, diseinua, moda eta baita gastronomia ere. Izan ere, 2014-2020 europar programa estrategikoak *Creative Europe* du izena eta arlo guzti hori hartzen du, kulturen gobernuen esku-hartze eremua konplexuago bihurtuz. Aldi berean, kultur eremua sorkuntza industriatara zabaltzeak sektore horren dinamismoa, bizitasuna eta ekonomian duen garrantzia indartzen ditu.

Kulturak berezkoak dituen balioak dira aldatzeko, berritzeko eta arriskatzeko gaitasuna. Bere kultur jarduna sendotzearekin batera, gizarte ekintzaren eremu ezberdinetan sorkuntza eta kultura balio gisa bultzatzen dituen gizartea bere egitura osoan berrikuntzaren alde egiten ari den gizartea da.

### Indarguneak

Sorkuntzak loraldia bizi du bai kalitatearen, bai aniztasunaren eta bai aitormenaren aldetik. Orain urte batzuk sinetsi ezinak ziratekeen kalitate maila eta nazioarteko oihartzuna lortu ditu, urteotan, euskal kulturak.

Euskaraz sortua da goi maila erdietsi duen kulturagintza horren parte garrantzitsu bat. Euskaraz sortutako kultura aintzat hartu gabe ezin da ulertu Euskadiko kultur egoera, horren azken urteotako loraldia.

Kulturaren eskaintzak urrats nabarmenak egin ditu azken hamarkadan, bai bikaintasunari bai eta nazioartekotasunari dagokionean ere. Kultura ari da bilakatzen munduan ezagunago egiten gaituen elementu nagusia. Kulturaren eskaintzaren bikaintasunak, nazioarteko proiektzioan eta hirien dinamikotasunean duen eraginaz gain, aukera paregabeak eskaintzen dizkie euskal sortzaileei beren talentua garatzeko eta beren obrak proiektatzeko.

### Ahultasunak

Emitza nabarmengarriek ezin dute ordea ahantza-razi kulturagintzak jardun profesional bezala bizi duen egoera ahul eta hauskorra. Sortzaileen lan baldintzek txarrera egin dute krisiaren ondorioz eta lan merkatua ere urritu egin da nabarmen. Prekaritateak bereziki gogor kolpatzen du kulturagile profesionalen alorra.

Kultura industriek ere ahultasun handiak dituzte, merkatu urriaren, enpresen neurri eskasaren eta atomizazioaren ondorioz. Eragozpen handiak daukate gure kultura industriek merkatu zabalagotara jauzi egin ahal izateko.

Ahulezia hori esplikatzen beste arrazoi bat euskal merkatuaren urritasuna da. Herri txikia gara, eta barne merkatuak nekez eman dezake sortzaileak beren lanetik bizi izateko adina, edo industriek garatu ahal izateko bezainbat. Euskaraz ari diren sortzaile nahiz industriek are zailagoa dute merkatuaren arabera aurrera egitea, euskaldunen kopurua eta horien kultura ohiturak (erderekiko joerak) kontuan hartuta.

Euskal sorkuntzaren loraldia, Euskadiko sortzaileen kalitatea eta adituen foroetan duten aitormena ez dira behar bezain ezagunak euskal gizartean. Kulturarekiko eta bereziki euskal kulturarekiko ezagutza, errespetua eta harrotasuna indartu beharra dago.



## 2.3./

## **KULTURA: EKOSISTEMA BAT**

Kulturak ekosistema bizia eta dinamikoa osatzen du. Berez konplexua izanik ekosistema, are konplexuagoa egiten dute aldakuntza sozial, politiko, ekonomiko eta teknologikoen sakontasunak eta bizkortasunak.

Kulturaren ekosistema elikatzen duten eragileak oso dira desberdinak izaeraz, logikaz, xedez, neurritz eta premiaz: sortzaile, ekoizle, programatzaile, ikus-entzule, erabiltzaile, erosle, erakunde, ekipamendu handi eta antolamendu txiki, sorgune, agertoki, gordailu eta liburutegi, guztiak dira beharrezko, guztiak dira ingurune bizi, eraginkor, anitz eta, aldi berean, hauskor horren osagarri.

Ekosistemaren barne bizitasuna eta aberastasuna sustatzea dute kultur politikek helburu: osotasunaren kezka gidatu behar ditu.

### **Ekimen publikoaren garrantzia**

Ekimen publikoa nahitaezkoa da kulturaren ekosistema garatu dadin. Izan ere, sorkuntzaren ugaritasuna eta aniztasuna ahalbidetzeko inguru emankorra antolatzen lagundu behar du ekimen publikoak; sorkuntza hori kultur adierazpen eta produktu zehatzetan gauzatzeko ahalmena duten industriak sustatu behar ditu; kultura ezagutzeko, gozatzeko eta erabiltzeko aukera gizarte osoari emango dioten guneak sortu eta dinamizatu behar ditu; bertan, euskal kulturaren presentzia bermatu behar

du; kultura aintzat hartzen duten eta bereganatzen duten publikoak dinamizatu behar ditu; ezagutza lantzeko, memoria kolektiboa zaintzeko eta gizarteratzeko erakundeak aktibatu behar ditu. Euskaraz eta gaztelaniaz.

Euskadin sortzen eta eskaintzen den kultura guztia da euskal erakundeon ardura. Gure Herriaren bi hizkuntzak dira gure.

### **Kultura euskaraz**

Ekosistema berezi bat du kulturaren ekosistemak Euskal Herrian: euskaraz sortzen, hedatzen, partekatzen eta bizitzen den kultura. Ekosistema hori da euskal kulturaren muina, berezia bihurtzen duena, bereziki sustatzea eta indartzea dagokiguna.

Ez da ekosistema itxia, euskal (euskarazko) kulturaren ekosistema ez dago kulturaren sistema orokorretik at, euskal eta erdal kultura ez dira bi mundu aparte, ez dira elkarri bizkar emanda bizi, ez daude kontrajarriak: gero eta josiagoak daude, gero eta gehiago dira elkarren ongarri eta aberasgarri.

Euskaraz sortzen den kultura arreta bereziki sustatzeko, zaintzeko eta gizarteratzeko ardura daukagu. Hizkuntza da geure gizartearen ondasunik preziatuena, eta herri bezala definitzen gaituena. Euskalduntze eta berreuskalduntze prozesu zail, konplexu eta ederrean dago gure gizartea konprometituri, mendeetako menpekotasunaren

eta urritze dinamikei aurre egiteko. Konpromiso horrekin uztartuta doa kultura euskalduntzeko eta berreuskalduntzeko ahalegina.

Kultura politika guztietan euskarazko jarduna lehenesten eta bereziki sustatzen da, ez baita oraindik aukera parekotasunik, diglosiaren, eremu urriaren, urteetako urrikeriaren eta merkatuaren baldintzen ondorioz. Berdintasunaren aldeko aldarria da euskarazko kulturaren alde egitea.

## 2.4./

# KULTUR POLITIKAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Gertutasuna, lankidetzaz, jarraikortasuna, osotasuna eta objektibotasuna dira Jaurlearitzaaren kultur politiken oinarrian dauden balio nagusiak.

## Gertutasuna

Kultur politikak kultur gintzaren zerbitzuan daude. Kultur gileen – sortzaileen, ekoizleen eta, oro har, sektoreko profesionalen – jakintza, eskarmentua eta premiak jarri behar dira kultur politiken erdigunean. Erakundeok ez dugu kultura egiten, kultura egiteko baldintzak eta aukerak bermatzen ditugu. Kultur gileen zentraltasuna aitortzea eta, beraz, haiekiko gertutasuna zaintzea kultur politiken oinarri garrantzitsua da.

## Erantzunkidetasuna

Kultur politikak ezin dira izan soilik erakundeek, bakarrik eta bere kabuz, erabakiak. Kultur politikak kultur gileekin landutakoak izan behar dira, ahal den neurrian. Adostasuna eta akordioa bilatzea funtsezkoa da, eraginkortasunaren eta erantzunkidetasunaren izenean.

Bestalde, kulturaren inguruko eskumenak beste erakundeekin partekatuta dira, Foru Aldundiekin nahiz Udalekin. Haiek lankidetzaz, koordinazioa edo auzolana funtsezkoak dira, eta ezinbestekoak, egingarritasuna eta eraginkortasuna lortu nahi baditugu.

## Jarraitutasuna

Kultur politikek iraun egin behar dute, jarraitutasuna behar dute, koherentziari eutsi behar diote legegaldien ginetik, oinarri sendoak izan ditzaten eta eraginkor gerta daitezten. Lan ildoak etengabe zuzendu eta egokitu beharra luzera begirako politikekin bateratu behar da. Are gehiago, lan ildo nagusiak alde batetik sektoreekin eta bestetik erakundeen artean adostu izan badira.

## Osotasuna

Kultur politikek kulturaren alor guztietan eta aspektu guztietan eragin behar dute. Ekosistemaren kontzeptuari jarraiki, bere osotasunean begiratu behar da kultura, kontuan harturik esparruaren aniztasuna, inplikaturak dauden alor guztiak, eragile klase guztiak. Era berean, alor bakoitzaren baitako balio kate osoan bermatu behar da dinamikotasuna: sorkuntzatik hasi, ekoizpen bilakatu, merkatura heldu eta ondare bihurtzen denerainoko bidea zaintzen eta sustatzen ditugu kultur politiketatik.

## Objektibotasuna

Kultur politikek, oinarrian, errealitatearen ezagutza behar dute. Gure errealitatea ahal den sakonen eta ahal den objektiboan ezagutzeko ahalegin etengabea egiten da, garatzen ditugun politikek lur sendoa izan dezaten. "Ezagutza politikak" izan behar dute kultur politiken abiapuntua.

Ezagutzarako gure lanabes nagusia Kulturaren Euskal Behatokia da. Herritar guztien eskura daude Behatokiaren ikerketa eta txostenak; gero eta gehiago hitzartzen dira haren eginkizunak HAKOBAko gainerako erakundeekin. Orain arte Kulturaren Sustapenerako Zuzendaritzari lotu izan zaio, batez ere, Behatokia; hemendik aurrera, ondarea ere artatuko du, Sailburuordetza guztiari eman diezaion zerbitzua.

**3/**

**Kultur  
politikak:  
hiru  
azpisisistema**

---

### 3.1./

## HIRU AZPISISTEMA: DEFINIZIOA

Gure kultur politiken zioa hiru eginkizun nagusitan laburbil daiteke: Euskal Herria bere kulturaren sortzaile izan dadin ahalbidetzea, euskal gizarteari kultura bizitzeko aukerak eskaintzea, eta euskaldunon memoria kolektiboa gizarteratzea.

Hiru eginkizun nagusien arabera, hiru azpizistematan antola genezake Kultura Sailburuordetzaren jarduna:




Hiru azpizistema horien dinamikotasuna beharrezko du kultura sistema bizi eta osasuntsuak.

### 3.2./

## OSAGARRITASUNA, ELKAR ERAGINTZA, OREKA

### Osagarritasuna

Lotura estua dute hiru azpizistemek, elkarren aberasgarri dira. Herri batek, kultur sistema osasuntsua izango badu, sortu egin behar du, eskaintza aberatsa ziurtatu behar du eta bere iraganaren memoria zaindu behar du.



## Elkar eragintza

Ez bakarrik elkarren osagarri, elkarren eragile izan behar dute hiru azpisistema horiek, kulturaren sistema osoa dinamikoa izan dadin.

Euskal kulturak sortzen eta ekoizten duena Euskadiko kultur eskaintzaren parte garrantzitsua da, eta Euskal Herriaren kultur ondarea aberasten du etengabe.

Kultur eskaintza aberatsa beharrezkoa zaio euskal sortzaileari. Bera eta bere ingurua elikatu egiten dira eskaintza horretatik. Gainera, kultur erakunde edo jaialdi nagusiak kultur sistemaren bizitasunerako, bikaintasunerako eta nazioartekotasunerako suspergarriak dira.

Euskal kulturak egun sortzen duena ondare bihurtuko da, eta ondarea sorkuntza berriaren abiapuntu bilakatzen da.

## Oreka


Kultur politikak ulertzeko proposatzen dugun hiru azpisistemen eskeman, bereziki garrantzitsua da, aurrekontuei begira ere, azpisistema horien arteko oreka mantentzea.

Orekaren kezkak ez du esan nahi hiru azpisistemetako aurrekontuak parekatu egin behar direnik. **KULTUR ESKAINTZA** zein **MEMORIA BIZIA** azpisistemek beti izango dute pisu handiagoa aurrekontu publikoetan.

- Kultur eskaintzaren eta memoria biziaren azpisistemetan, eragileak ekipamendu eta sare handiak dira, zerbitzu ugari ematen dutenak, lantalde zabalak dituztenak.
- Gizarteari, oro har, agerikoagoa zaio kultur eskaintzaren aldeko politikak egitearen garrantzia, museo, kultur gunek eta jaialdi handiek eragin zuzena daukatelako hirien eta lurraldeen dinamikotasunean, harrotasunean eta suspertze ekonomikoan.

Horrexegatik, azpimarratu egin behar da **SORKUNTZA ETA EKOIZPENA** sustatuko duten politiken garrantzia. Jardun pribatua da sorkuntza, norbanakoek eta enpresek gauzatzen dutena, baina diru publikoz ahalbidetu behar da, kulturak balio kolektiboa delako, gizatalde batek bere garapenerako eta bere taldetasuna etengabe eraberritzeko nahitaezkoa delako, sorkuntza guztia ez delako merkaturako produktu bilakatzen ahal, eta merkatuak ez delako nahikoa potentziarik sorkuntza bideragarri egiteko.

Sorkuntzaren kezkak eta ekoizpenaren ardurak kultur politiken zentroan egon behar dute.



### 3.3./


## BI ARDATZ NAGUSI

Bi ardatz nagusik zeharkatzen dituzte gure kultur politikak: hizkuntza berdintasunak eta genero berdintasunak.

Gure kultur politika guztietan erantzuten zaie bi kezka nagusioi, berdintasunaren aldeko konpromisoaren bi alderdiori: hizkuntza berdintasuna eta genero berdintasuna.

Kultura euskaraz eta gaztelaniaz sortzen da gure herrian, gizonezkoek eta emakumezkoek sortzen dute. Baina euskaraz jardutean berdintasun hori ez da oraindik errealia, ez da behar lukeen bezain orekatua. Lehenetsuna behar dute, beraz, zaintza eta arreta berezia, euskaraz sortzeak eta ekoizteak eta emakumezkoek sortzeak eta ekoizteak.

- Hiru azpisisistematan eragin behar da hizkuntza parekotasunean eta genero berdintasunean aurrera egiteko: sorkuntza eta ekoizpenean, kultur eskaintzan eta memoriaren zaintza eta gizarteratzean.
- Gure deialdi eta lan ildo guztietan ematen zaie lehenetsuna euskarari, alde batetik, eta emakumeen parte hartze aktiboari, bestetik.



### 3.4./

## GOBERNANTZA

Gobernantza partekatua da –ardura kidesasuna edo auzolana– kulturaren gobernantza definitzen duen eredua. Azpisisistema bakoitzean modu desberdinean gauzatzen da, ordea, ardura kidesasun hori.

**Sorkuntza eta ekoizpenaren** azpisisistematan, kulturagileekin partekatzen da gobernantza, sektore bakoitzeko eragileekin eta sektorea egituratzen duten elkarte profesionalekin. Kultur eragileek ardura eta erabakimen nabaria dute kultura sortzeko eta ekoizteko azpisisistematan.

- Deialdiak eta, oro har, lan ildoak sektorearekin lantzen eta adosten dira. Deialdi horien gauzatzea berriz, –diru-laguntzen hartzailea erabakitzea– sektoreko adituek osatutako balorazio batzordeen esku geratzen da.
- Sariak ere adituen batzorde independenteetan erabakitzen dira.

**Kultur eskaintzaren** azpisisistematan, herri erakundearen arteko ardura kidesasuna da nagusi.

- Kultura gizarteratzeko eta demokratizatzearen sareetan, erakunde maila bakoitzak argi definitua dauka bere eginkizuna.
- Museo nahiz jaialdi nagusiak, berriz, erakundeek elkarrekin kudeatzen dituzte, lankidetzan eta, ia beti, parekotasunez.

**Memoriari** dagokionean, gainerako erakundeekin partekatzen da gobernantza, funtzio desberdinak betez.

- Maila bakoitzari dagokion ardura arautua dago.

## 3.5./

## HARREMAN PUBLIKO-PRIBATUA

Erantzunkidetasun publiko-privatua da kulturaren gobernantzaren beste ezaugarri garrantzitsu bat. Hau ere modu berezian gauzatzen da azpisistema bakoitzean.

**Sorkuntza eta ekoizpenaren azpisisteman, eragileekin (sortzaile nahiz ekoizle) ematen da harreman publiko-privatua.**

- Laguntza publikoak sortzaileen nahiz ekoizleen ekarpen ekonomikoaren osagarri dira.
- Jaurlaritzaren laguntzen bidez (eta oro har laguntza publikoen bidez) ezin da sekula sorkuntzak exijitzen duen lana bere osotasunean finantziatu. Denbora eta lana dira sortzaileen ekarpen ekonomikoaren neurria ematen dutenak. Ekarpene horri garrantzia ematea behar beharrezkoa da, dirutan baloratzen zaila gertatzen bada ere.
- Ekoizpenaren kasuan –kultur industrietan–, ekoizleek inbertitzen duten diru pribatuaren osagarri da diru publikoa. Merkatuaren erantzunaz gaindiko interesa duen jarduna da kultura, gizarte batek beharrezko duena. Beraz, diru publikoaren ekarpenak jardun

kultural eta ekonomikoa bermatzea eta merkatuaren ezintasunak konpentsatzea du xede, are gehiago gurea bezalako merkatu txiki batean, eta gurea bezalako hizkuntza gutxitu baten kasuan.

**Kultura eskaintzaren azpisisteman** –museo, ekipamendu eta jaialdi nagusietan–, bideragarritasunaren oinarria diru publikoa baldin bada ere, ekarpen pribatuak garrantzi handia dauka.

- Enpresa handiak dira, oro har, finantzazio pribatua egiten dutenak. Beraien erantzunkidetasuna ezinbestezkoa da kultur eskaintzaren azpisistema bizi eta oparoari eusteko.

**Memoria biziaren azpisisteman** ez da ohikoa ekarpen pribatua, ez bada jabetza pribatuko ondarea zaintzeko eta gordetzeko duen ardura, arautua dagoena eta diru-laguntza deialdi berezi batez laguntzen dena.

|                                | ERANTZUNKIDETASUNA               | PUBLIKO / PRIVATUA   |
|--------------------------------|----------------------------------|--|
| <b>SORKUNTZA ETA EKOIZPENA</b> | Erakundeak eta kulturgileak      | Diru publikoa sortzaileen eta ekoizleen aportazioaren osagarri |
| <b>KULTUR ESKAINTZA</b>        | Erakundeen arteko parekotasuna   | Finantzazio pribatua diru publikoaren osagarri                 |
| <b>MEMORIA BIZIA</b>           | Erakundeen arteko osagarritasuna | Finantzazio pribaturik ez                                      |

### 3.6./

## LAN ILDO NAGUSIAK

Kultur politiken konplexutasuna hiru azpisisistemetara ekarrita, funtsezkoa da zehaztea zeintzuk diren bakoitzaren lan ildoak eta programa nagusiak.

**Sorkuntza eta ekoizpenari** dagokionez, xede nagusia da kultur produktuak ekoizteko ahalmena ziurtatzea. Horretarako, funtsean, deialdi irekiak bideratzen dira eta sortzaileen jarduna ahalbidetzeko programak laguntzen dira:

- Sorkuntzarako deialdiak
- Sormen gune eta lantegietarako laguntzak
- Ekoizpenerako deialdiak
- Sektorea egituratzeko laguntza izendunak
- Trebakuntzarako eskaintzak
- Euskal kulturaren ikusgarritasuna areagotzeko neurriak
- Nazioartekotzea bultzatzeko lan ildoak
- KSlak (Kultur eta Sormen Industriak) sendotzeko eta egituratzeko deialdi eta politikak

Kultura gizarte guztiaren eskura jartzea da **Kultur eskaintza** deitu dugun azpisisistemaren xede nagusia. Herritarrek kulturarako eskubidea dutelako, kultur praktiketara heltzeko aukera bermatu behar zaio herritarri. Kultura demokratizatzeko eginkizunean Euskadiko erakundeen hiru mailak gaude konprometituta: Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udalak.

- Kultura gizarteratzeko ekipamenduen sistema: Euskadiko Antzoki Sarea (SAREA) eta liburutegien SISTEMA
- Nazioarteko proiektzioa duten museoak eta kultur guneak
- Nazioarteko proiektzioa duten jaialdiak
- Euskadiko Orkestra Sinfonikoa (EOS) eta Euskal Herriko Gazte Orkestra (EGO)

Euskadiren **memoria bizia** gordetzeko, zaintzeko, gizartearen eta egungo sorkuntzaren esku jartzeko politikak hartzen ditu azpisisistema honek bere baitan.

- Legeak eta arauak
- Ondarea babesteko eta ikertzeko deialdiak
- Memoriarako erakundeak
- Museoak eta fundazioak
- Memoria guneak
- Euskal Liburutegia



# 4/

## Helburu eta konpromiso estrategikoak

---

## 4.1./

# HELBURU ESTRATEGIKOAK

Lan ildo estrategiko guztiak orekaturik garatzea da aurreneko helburua. Hiru azpizistemek elkar eragiten dutenez, hiruretan egin behar ditugu urratsak, ekosistema sendotzeko, kulturaren balioa, garrantzia eta erakarmena sustatzeko.

Euskal kultura sendotzea da lehen helburu nagusia, sortzaileen jarduna hauspotuz eta ahalbidetuz, ahal den neurrian, beren lan baldintzak hobetuz, kulturaren sistema publikoa euskal sortzaileen mesedetan jarritz. Sortzaileen lana eta euskal ekoizpenaren oihartzuna ezagunagoa eta erakargarriagoa egitea, euskal kultura ikusgarriago eta ezagunago egitea funtsezkoa da euskal kultura sendotzeko. Publikoak erakarri behar dira, publiko berriak euskal kulturarekiko zaletu, gazteak batez ere. Halaber, nazioartekotzea sustatzea desafio nagusia da, Kultura Sailburuordetzak eta Etxepare Euskal Institutuak koordinazio gero eta estuagoan ahalbidetuko dutena. Museoen eta jaialdien sistemak erabateko

garrantzia dauka ahalegin honetan. Trebakuntza etengabea erabakiorra gertatuko da munduak oro har eta kultur munduak preseski bizi dituzten aldakuntzei eta desafio berriei egoki erantzuteko. Kulturaren alor guztietan emakumeen presentzia eta eragina areagotzea giltzarri da kulturaren eta gizartearen biziberritzerako.

Kultur eskaintzaren azpizistemak hiru helburu estrategiko nagusi ditu: kultura gizartearen esku jartzea, nazioarteko oihartzuna eta eragina izango duen eskaintza kultural erakargarria egitea eta euskal kulturaren suspertzaila -edo "traktore"- izatea, bikaintasunari eta nazioartekotasunari begira.

Memoria biziaren azpizisteman, ondarearen ikuspegi zabalagoari erantzun beharko zaio, industria ondarearen alorrean urrats garrantzitsuak eginez, materiagabeko ondarea zainduz eta gizarteratuz. Horretarako, lege araudia eguneratzeko ahaleginean dihardugu. Ondarearen alorrean,

helburu estrategiko nagusia Euskal Kulturaren Liburutegi Digitala sortzea eta abian jartzea da. Eskaintza berri eta beharrezkoa egingo du, orain arteko digitalizatze politikak bateratu eta kohesionatuko ditu eta nazioarteko estandarretara ekarriko ditu, gure kulturaren eta gure Herriaren memoria eskuragarriagoa izan dadin, Euskal Herriari berari eta mundu zabalari begira.

## 4.2./

# KONPROMISO ESTRATEGIKOAK

### SORKUNTZA ETA EKOIZPENA

|                |   |
|----------------|---|
| 1. KONPROMISOA | EUSKAL KULTURAREN SORKUNTZA ETA EKOIZPENA SENDOTU           |
| 2. KONPROMISOA | EUSKAL KULTURAREN IKUSGARRITASUNA AREAGOTU                  |
| 3. KONPROMISOA | BERRIKUNTZA SUSTATUZ, KULTURA ETA SORMEN INDUSTRIAK INDARTU |

### KULTUR ESKAINTZA

|                |  |
|----------------|--|
| 4. KONPROMISOA | KULTURA GIZARTERATZEKO SISTEMA PUBLIKOAK SENDOTU   |
| 5. KONPROMISOA | NAZIOARTEKO ERAGINA DUTEN AZPIEGITURA KULTURALEN GARAPENA AHALBIDERATU ETA BERAIEI ERAGIN "TRAKTOREA" AREAGOTU |

### MEMORIA BIZIA

|                |   |
|----------------|---|
| 6. KONPROMISOA | EUSKAL KULTURAREN MEMORIA ZABALDU ETA BIZIBERRITU |
| 7. KONPROMISOA | EUSKAL KULTURAREN LIBURUTEGI DIGITALA ERAIKI      |

### GOBERNANTZA

|                |  |
|----------------|--|
| 8. KONPROMISOA | ERANTZUNKIDETASUNEAN SAKONDU GOBERNANTZAREN ALOR GUZTIETAN: ORDENATU ETA PARTEKATU |
|----------------|--|

## 4.3./

# KONPROMISOAK ETA PROGRAMA

## Gobernu programa

XI. Legegintzaldirako Gobernu Programaren hirugarren ardatza dagokio kulturari. Bertan, kultur garapena eta giza garapena, bi-biak biltzen dira bizikidetzaren kontzeptuan. Kulturari dagozkion konpromisoen lerro burua “Kultura integratzailea eta irekia” da. Zortzi konpromisotan zehazturik aurkezten dira, gero, Gobernu honek kulturaren dituen eginkizunak:

**108.** Kultura dinamizatzeko eta sustatzeko estrategia sustatu, 2020. urteari begira

**109.** Euskadiko sortzaileen sarearen alde egin, sortzaileei eta kultura industriei lagunduz

**110.** Euskadiko kultura-produkzioaren ikusgarritasuna eta irisgarritasuna indartu

**111.** Sormen industriaren sektorearen antolakuntza bultzatu

**112.** Erreferentziazko azpiegiturretan egiten diren ekitaldien eginkizun eragilea eta nazioarteko hedadura finkatu

**113.** Ondare kulturala babesteko politikak gehiago zabaldu, bai eta haien eragin soziala ere

**114.** Euskal kulturaren espazio digitala indartu, kultur ondarearen politika publikoak berrituz, eta irisgarritasunean eta herritarren partaidetza aktiboan arreta jarrita

**115.** Gobernantza partekatua areagotu kultura arloan

## Legealdiko 7 konpromisoak

2017an, Legealdi honetarako zazpi konpromiso hartu zituen Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Legebiltzarraren aurrean:

**1. SORTZAILEEKIKO eta EKOIZLEEKIKO konpromisoa**

**2. Euskal kulturaren IKUSGARRITASUNAREKIKO konpromisoa**

**3. KULTURA ETA SORMEN INDUSTRIEKIKO (KSI) konpromisoa**

**4. ERREFERENTZIAZKO KULTURA ERAKUNDE ETA GERTAKARIEKIKO konpromisoa**

**5. ONDAREAREKIKO konpromisoa**

**6. EUSKADI DIGITALAREKIKO konpromisoa**

**7. GOBERNANTZA PARTEKATUAREKIKO konpromisoa**

## Programak: konparazio taula

Bistan da erabateko koherentzia dagoela Gobernu Programaren, Sailak Legebiltzarrari aurkeztatukoaren eta Plan honetan markatzen diren ildo estrategikoen artean.

| GOBERNU PROGRAMA   | LEGEALDIKO KONPROMISOAK                                  | KONPROMISO ESTRATEGIKOAK  |
|--|--|---|
| <b>109.</b> Euskadiko sortzaileen sarearen alde egin, sortzaileei eta kultura industriei lagunduz  | 1. Sortzaileekin eta ekoizleekin                         | 1. Euskal kulturaren sorkuntza eta ekoizpena sendotu  |
| <b>110.</b> Euskadiko kultura produkzioaren ikusgarritasuna eta irisgarritasuna indartu  | 2. Euskal kulturaren ikusgarritasunarekin                | 2. Euskal kulturaren ikusgarritasuna areagotu   |
| <b>111.</b> Sormen industrien sektorearen antolakuntza bultzatu  | 3. Kultura eta sormen industriein (KSI)                  | 3. Berrikuntza sustatuz, kultura eta sormen industriak egituratu eta indartu                                      |
| <b>112.</b> Erreferentziazko azpiegituretan egiten diren ekitaldien eginkizun eragilea eta nazioarteko hedadura finkatu  | 4. Erreferentziazko kultur erakunde eta jaialdiekin      | 5. Nazioarteko eragina duten azpiegitura kulturalen garapena ahalbideratu eta beraien eragin "traktorea" areagotu |
| <b>113.</b> Ondare kulturala babesteko politikak gehiago zabaltu, bai eta haien eragin soziala ere   | 5. Ondarearekiko   | 6. Euskal kulturaren memoria zabaltu eta biziberritu  |
| <b>114.</b> Euskal kulturaren espazio digitala indartu, kultur ondarearen politika publikoak berrituz, eta irisgarritasunean eta herritarren partaidetza aktiboan arreta jarrita | 6. Euskadi digitalarekin                                 | 7. Euskal Kulturaren Liburutegi Digitala eraiki   |
| <b>115.</b> Gobernantza partekatua areagotu kultura arloan   | 7. Erantzunkidetasunarekin (gobernantza partekatuarekin) | 8. Erantzunkidetasunean sakondu gobernantzaren alor guztietan: ordenatu eta partekatu                             |

## 4.4./

# KONPROMISOAK ETA EKIMENAK

## 1.

Sorkuntzarekin eta kulturaren ekoizpenarekin hartzen du Jaurlaritzak bere aurreneko konpromisoa. Gure politiken oinarrian daude sorkuntza ahalbidetzea eta ekoizpena sendotzea, kopuruz nahiz kalitatez euskal kulturaren goraldiari hauspoa emateko.

- Sorkuntzarako baliabideak eskaintzen jarraitu behar dugu, eta sortutako hori kultur ekoizpen bihurtuko duten enpresak eta kultur industriak bideragarri egiten lagundu.
- Sorkuntza ahalbidetzeko, berebiziko garrantzia du sortzaileen lan-baldintzak hobetzea, prekaritateari aurre eginez.
- Trebakuntza etengabeko kezka izango da, profesionaltasunean sakontzeko eta aro digitalaren desafioei aurre egin ahal izateko.
- Nazioartekotzea sustatu behar da, merkatu zabalagotara heltzea funtsezkoa baita bideragarritasuna bilatzeko.
- Sektorearen –kulturgileen– antolamendua giltzarri da kultur sistema sendotzeko, politikak adosteko eta kultur politiken egokitasuna ebaluatu ahal izateko.

## 2.

Euskal kulturak sortu eta ekoizitakoa euskal gizartera iristea funtsezkoa da. Produktu globalen aroan nola egin euskal kultura euskaldunontzat ezagunagoa eta erakargarriagoa gerta dadin?

- Erakundeon eginkizunetan ez ezik, kultura industrietan ere txertatu behar litzateke ardura hau. Urteetan, ekoizpena lagundu izan da, ekoizpena bermatu nahi izan da; ekoizitako

hori ezagunagoa, erakargarriagoa eta erabiliagoa egiten arduratzeko garaia da, erakundeetatik nola enpresetatik bertatik.

## 3.

Kultur jardunaren ohiko alorra (ondarea, artea, literatura, musika, eszena arteak, ikus-entzunezkoak...) zabaldu egiten da politika publikoetan sormen industriak ere kontuan hartzearekin (diseinua, eduki digitalak, moda, bideojokoak, hizkuntzaren industriak, arkitektura, etc.). Alor berri honek (Kultura eta Sormen Industriak: KSI) berrikuntzarako eta garapen ekonomikorako garrantzi handiko esparru bat definitzen du.

- Esparru berria da, oraindik zehaztaperen, antolamendu eta auto kontzientzia beharrean dagoena.
- Aukera berria da, kultura industrien alderdi enpresarial eta ekonomikoa modu eraginkorragoan lantzeko. Sektoreen arteko zeharkakotasuna bultzatzeko.
- Sektorearen garapena berrikuntza etengabeaz sustatuko da, sektorearen egituraketak berrikuntzarako apustua indartzeko aukera emango digu.
- Politika berriak eskatzen ditu KSlen alorrak: lankidetzan arituko gara Garapen Ekonomikoko Sailarekin eta berrikuntzarako eragile publikoekin (Innobasque, teknologia zentroak, etc.).
- Kulturaren sektorearen antolamendua birpentsatzera, trinkotzera eta bateratzera garamatza KSlen eremua definitzeak, zazpi azpisektoretatik hamabostera pasatzea baitakar. Sendotasun eta bateratasun handiagoa eskatzen du, beraz, alor bakoitzean; eta antolamendua, halakorik ez daukaten sektoreetan (ondarea, ikusizko arteak, diseinua...).

## 4.

Kultura gizarteratzeko sistema publikoetan bi sare dira nagusi: liburutegien sarea eta antzokien sarea. Oro har, udalen ardurapekoak dira. Erakundeen arteko lankidetzak eskatzen dute sareok. Jaurlaritzaren zeregin nagusia horien arteko koordinazioa suspertzea da, sarearen ehuna indartzea.

- Irakurketa Publikoko Liburutegien Sarea bateratzea lortu ostean, orain sare hori zabaltzen jarraitzea dugu helburu. Udalen ardurapeko liburutegi guztiak daude dagoeneko Sarean; Foru Aldundien ardurapekoak eta liburutegi espezializatuak Sarean lan egitera ekartzea da hurrengo urteetarako xedea.
- Sarearen bateratasuna lortzeko, giltzarri izan da eLiburutegia, irakurketa publikorako liburutegi digitala. Hori garatzeko eta horren ezagutza hedatzeko eginkizunari jarraipena emango zaio hurrengo urteetan. eLiburutegiaren zinema eskaintza indartuko da, bereziki.
- Gizartearen beharkizun berriei etengabe erantzuteko ahalbideak eman beharko zaizkio liburutegien sistemari. Aro digitalak dakartzan ohitura aldakuntzei egokitu beharko zaizkio liburutegiak. Gizarte gero eta multikulturalagoan, gizatalde iritsi berrien integrazioarako eta, oro har, gizarte kohesiorako liburutegiek duten eginkizuna azpimarratu beharko da eta baliabide bereziak eman beharko zaizkie eginkizun horri ekiteko.
- Euskadiko Antzoki Sarea indartu eta, batez ere, euskal antzerkigintzaren zerbitzuan jarri behar da. Batetik, euskal herritarrei arte eszenikoak ezagutzeko eta gozatzeko aukera ematen die, nonahikoak direla ere, eta kultura eskaintzaren parte inportante dira; baina izan behar dute, baita ere, Euskadin sortzen diren antzerki eta dantza lanen agerleku eta sustatzaile.

## 5.

Nazioarteko proiektzioa duten museoek eta jaialdiek baliabideak behar dituzte bere eginkizunari eusteko, alegia, munduan beren mailako gainerako museo eta jaialdiekiko lehiari eta lankidetzari eusteko.

Horien garapena bermatzeaz gainera, euren izaera "traktorea" indartu behar da, bikaintasunean eta nazioartekotasunean beren sektore osoari aurrera eginarazteko ahalmena, alegia.

## 6.

Ondarearen ikuspegiak aldakuntza sakona bizi izan du azken hamarkadetan. Ondarearen kontzeptua, demokratizatzearekin, zabaldu egin da eta konplexuagoa bihurtu da gainera, eremu berriak definitzearekin: ondare industrialia, itsas ondarea eta, batez ere, ondare materiagabea alor berriak dira, bereziki landu beharko direnak.

- Kultura Ondarearen Lege berriari egokitu beharko zizkio ondarea babesteko eta gizarteratzeko politikak. Arreta berezia emango zaie ondare materiagabea lantzeko politikei, inbentariatzeko, katalogatzeko eta sustatzeko politikak definituz.
- Dokumentuen zaintza Euskadiko Artxibo Historikoari dagokio, arte plastikoaren memoria zaintzea museoei, zinemagintzarena Euskadiko Filmategian eta musikarena Eresbil fundazioari. Funtsezkoa da ondarea zaintzeko erakunde espezializatu horiek sendotzea eta bere izaera nazionala indartzea.
- Arte eszenikoen memoria zaindu eta memoria hori egungo sortzaileen eta zaleen eskura jarriko duen gordailua sortzea premiazkoa da. Eszena arteen memoria eta transmisioa landuko dituen erakundea eremu digitalean aurreikusten dugu.

## 7.

Euskal Kulturaren Liburutegi Digitala eraikitzea eta abian jartzea da hurrengo konpromisoa. Euskal kultura osoaren gordailu eta topagune izatea du xede: literaturatik hasiko da, berehala bereganatuko ditu zinema eta musika eta, azkenean, euskal kulturarako gordailu eta atari nagusi bilakatuko da. Erabiltzailea izango du ardatz, eta erabilgarritasuna, beraz, balore nagusi.

- Euskal kultura osoaren gordailu eta atari digitala izatea du xede euskal Kulturaren Liburutegi Digitalak. Literatura, dokumentu idatziak, argazkiak, irudiak, arte lanak, ikus-entzunezkoak eta musika bilduko ditu, lotuko ditu eta erabiltzaileen eskura jarriko ditu.
- Azken urte luzeetan kulturaren alorrean erakunde eta eragile guztien artean garatutako digitalizatzeko politikei dimentsio berri bat emango die Euskal Liburutegiak: metadatoak egoki erabiliz, funts guztien arteko loturak eskainiko ditu, dimentsio europarra emanez, gainera (Europeanan integratuz).
- Ordenatzea eta partekatzea dira Euskal Liburutegiaren eragin nagusiak. Ondare digital eta digitalizatuan orain arteko lan ildo guztien bateratasuna bilatuko du, metadatoak bateratuz, funtsa guztien elkar-eragina bermatuz.

## 8.

Erantzunkidetasunean sakontzea da Gobernantzari zuzenean lotzen zaion konpromisoa.

- Kultura Sailburuordetza eginkizun berrien aurrean indartzea ezinbestezkoa da. Zuzendaritza

desberdinen bateratasunean sakondu beharko da. Fisikoki ere, egoitza berean kokatuak beharko lukete Sailburuordetzaren Zuzendaritzak eta atal guztiek.

- Lankidetasuna areagotu behar da, halaber, Sailaren gainerako Zuzendaritzekin (HPS eta Etxepare) EITBrekin, eta Jaurlaritzako beste Sailekin (Hezkuntza, Lan Harremanak, Garapen Ekonomikoa...).
- Kultura politiketan ezinbestezkoa da gainerako erakundeekin lan egitea (Foru Aldundiekin eta Udalekin), hala baitago antolatua kulturaren eskumena. Koordinazioa, osagarritasuna eta koherentzia landu beharko dira beraz etengabe, batik bat HAKOBAREN bidez.
- Ezinbestekoa da, halaber, kulturgileekin –kultura egiten duten eragile guztiekin- lan egitea, sortzaileekin, ekoizleekin, sistema publikoko arduradun eta langileekin, museoekin, jaialdiekin, eta memoriarako guneetako profesionalekin.
- Datozen urteetan Kulturaren Euskal Kontseilua indartu behar dugu, bere osiera eta funtzioak zehaztasun handiagoz definituz. Egun indarrean dagoen berregituraketa sektorialaren prozesua, KSI politiken bidezko sektore berrien hasiera eta praktika kulturaletako zeharkakotasun orokortua, funtsezko elementuak dira hausnarketa berritu baten premian.
- Kultura Auzolanean-en hurrengo etaparen ildo nagusiak, Kulturaren Euskal Kontseiluarekin adostuko dira.
- Azkenik, ardura kidetasunaren konpromisoak ezagutza politikak izan behar ditu oinarrian, hau da, guztiok ezagutu, partekatu eta eztabaidatu genitzakeen datuak, azterketak eta hausnarketak. Kulturaren Euskal Behatokia da eginkizun horretarako gure lanabesik egokiena.

## 4.5./

# KONPROMISOAK ETA EKIMENAK (taulak)

### SORKUNTZA ETA EKOIZPENA

| <b>1. KONPROMISOA</b> | <b>EUSKAL KULTURAREN SORKUNTZA ETA EKOIZPENA SENDOTU</b>   |
|-----------------------|--|
| 1.1. ekimena          | SORKUNTZA SUSTATU ETA AHALBIDETU   |
| 1.2. ekimena          | EKOIZPENA GARATZEKO POLITIKAK INDARTU ETA EGUNERATU  |
| 1.3. ekimena          | SORTZAILEEN ETA EKOIZLEEN TREBAKUNTZA AHALBIDETU   |
| 1.4. ekimena          | NAZIOARTEKOTASUNA SUSTATU  |
| <b>2. KONPROMISOA</b> | <b>EUSKAL KULTURAREN IKUSGARRITASUNA AREAGOTU</b>  |
| 2.1. ekimena          | EUSKAL KULTURAREN EKOIZPENAREN PROZESUAN IKUSGARRITASUNAREN ARDURA TXERTATU                            |
| 2.2. ekimena          | SARIEN ERAGINA AREAGOTU, PUBLIZITATEAZ   |
| 2.3. ekimena          | EUSKAL KULTURAREN AZOKEN ETA JAIALDIEN SISTEMA EGONKORTU, ETA EUSKAL SORTZAILEEN PARTE-HARTZEA BERMATU |
| 2.4. ekimena          | KULTURAREKIKO EZAGUTZA ETA ZALETASUNA ZABALDU  |
| <b>3. KONPROMISOA</b> | <b>BERRIKUNTZA SUSTATUZ, KULTURA ETA SORMEN INDUSTRIAK INDARTU</b>                                     |
| 3.1. ekimena          | KSletarako GOBERNANTZA MOLDEA EGITURATU  |
| 3.2. ekimena          | KSI SEKTOREAN BERRIKUNTZA SUSTATU  |
| 3.3. ekimena          | SEKTOREAREN ANTOLAKUNTZA SENDOTU   |



## KULTUR ESKAINTZA

|                       |   |
|-----------------------|---|
| <b>4. KONPROMISOA</b> | <b>KULTURA GIZARTERATZEKO SISTEMA PUBLIKOAK SENDOTU</b>   |
| 4.1. ekimena          | LIBURUTEGIEN SISTEMAREN BATERATASUNA ETA BERRIKUNTZA SUSTATU  |
| 4.2. ekimena          | eLIBURUTEGIA GARATU, EZAGUTARAZI ETA EDUKI BERRIEZ HORNITU  |
| 4.3. ekimena          | ANTZOKI SAREAREN EUSKAL ARTE ESZENIKOEKIKO LOTURA ERAGINKORRAGOA EGIN   |
| 4.4. ekimena          | MUSEOEN EUSKAL SISTEMA SENDOTU, LEGEA GARATUZ ETA BABESA EGONKORTUZ   |
| 4.5. ekimena          | EUSKADI MAILAKO ERAGINA DUTEN JAIALDIAK ETA ZIRKUITUAK SUSTATU  |
| <b>5. KONPROMISOA</b> | <b>NAZIOARTEKO ERAGINA DUTEN AZPIEGITURA KULTURALEN GARAPENA AHALBIDERATU ETA BERAIEK ERAGIN "TRAKTOREA" AREAGOTU</b> |
| 5.1. ekimena          | NAZIOARTEKO PROIEKZIOA DUTEN MUSEOEN EUSKAL SISTEMA SENDOTU ETA HAREN ERAGIN "TRAKTOREA" AREAGOTU                     |
| 5.2. ekimena          | NAZIOARTEKO PROIEKZIOA DUTEN JAIALDIEN GARAPENEAN LAGUNDU   |
| 5.3. ekimena          | EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA NAZIOARTEKOTU ETA EUSKAL HERRIKO GAZTE ORKESTRA ERABERRITU                              |



---

## MEMORIA BIZIA

---

|                       |  |
|-----------------------|--|
| <b>6. KONPROMISOA</b> | <b>EUSKAL KULTURAREN MEMORIA ZABALDU ETA BIZIBERRITU</b>                             |
| 6.1. ekimena          | ARAUDIA EGUNERATU (APROBATU ETA INDARREAN JARRI)                                     |
| 6.2. ekimena          | ONDAREAREN BABESERAKO POLITIKAK EGUNERATU, ALOR BERRIAK ZAINDUZ                      |
| 6.3. ekimena          | ONDARE MATERIAGABEA BABESTEKO ETA GIZARTERATZEKO POLITIKAK GARATU                    |
| 6.4. ekimena          | MEMORiarako ERAKUNDEEN SISTEMA SENDOTU, ELKARLANA ETA BERRIKUNTZA SUSTATUZ           |
| 6.5. ekimena          | ONDAREA GIZARTERATU  |
| <b>7. KONPROMISOA</b> | <b>EUSKAL KULTURAREN LIBURUTEGI DIGITALA ERAIKI</b>                                  |
| 7.1. ekimena          | EUSKAL KULTURAREN LIBURUTEGI DIGITALAREN ERREPOSITORIOA ETA PLATAFORMA SORTU         |
| 7.2. ekimena          | EUSKAL KULTURAREN LIBURUTEGI DIGITALAREN FUNTSAK KUDEATU                             |
| 7.3. ekimena          | EUSKAL KULTURAREN LIBURUTEGI DIGITALAREN KUDEAKETA ETA KOORDINAZIO SISTEMA EGITURATU |

---

## GOBERNANTZA

---

|                       |   |
|-----------------------|---|
| <b>8. KONPROMISOA</b> | <b>ERANTZUNKIDETASUNEAN SAKONDU GOBERNANTZAREN ALOR GUZTIETAN: ORDENATU ETA PARTEKATU</b> |
| 8.1. ekimena          | ERAGILEEKIKO LANKIDETZA ETA ARDURAKIDETZA SAKONDU   |
| 8.2. ekimena          | KULTURAREN EUSKAL KONTSEILUA ETA "KULTURA AUZOLANEAN" PROGRAMA SENDOTU                    |
| 8.3. ekimena          | HAKOBA INDARTU, HERRI ADMINISTRAZIOEN ARTEKO KOORDINAZIOA AREAGOTZEKO                     |
| 8.4. ekimena          | SAILAREN BAITAKO ETA SAILEN ARTEKO KOORDINAZIOAN SAKONDU                                  |
| 8.5. ekimena          | EZAGUTZA POLITIKAK KULTUR POLITIKEN MUINEAN IPINI   |

4.6./

## **KONPROMISOAK, EKIMENAK ETA EKINTZAK**

**(taulak)**

Kultura Sailburuordetzako lan ildoak taulatan ordenatu ditugu, ekimenetan eta konpromisoetan sailkatuz. Sailburuordetzaren gaur egungo jarduna adierazten dute taula horiek.

Bertan itsatsi ditugu, halaber, datozen lau urteetan sortu edo indartu beharko diren lan ildoak, ekintza berrien proposamenak testuinguruan egoki uler daitezzen.

Azpisistemen arabera, hiru ataletan sailkatu dira kulturarako Eusko Jaurlaritzaren egungo lan ildoak. Gobernantzari dagokion laugarren atal bat erantsi zaio.

Taula horiek / *anexoan* bildu dira.

# 5/

## Lan ildo nagusiak. 2019-2022

---

Kultur sisteman izango duten eraginagatik edo beraiekin dakarten ahalegin ekonomikoagatik hurrengo urteetako kultur politikan giltzarri izango diren konpromisoak, ekimenak eta ekintzak esplikatzen dira atal honetan.

- Hurrengo urteetan nondik eta zergatik hazi behar genukeen argitu nahi da txostenaren atal honetan.
- Berriak dira batzuk, lehengo lan ildoetan sakontzea eta apustu handiagoa egitea planteatzen da beste kasu batzuetan.

## 5.1./

## SORKUNTZA ETA EKOIZPENA

### Sortzaileen lan baldintzak hobetu

Sortzaileekiko konpromisoari dagokionez, arreta berezia eskatzen du haien lan baldintzen hobekuntzak. Sortzaileen duintasun profesionalaren kezkak kultur politiketan txertatua behar du.

Ez baita Jaurlaritzari bakarrik dagokion eginkizuna, ez eta Jaurlaritzak bakarrik egin lezakeena, HAKOBAtik (herri erakundeen koordinazio batzordeak) bideratuko da eginkizun hori. Bi ekintza proposatzen dira hemen, sormen-lanaren duintasuna, profesionaltasuna eta berezitasuna aintzat hartuak izan daitezten:

- Esparru publikoak erabateko eragina dauka kulturaren sisteman. Eredugarria izan behar du, beraz, sortzaileekiko tratuan ere. Sortzaileen lana ordaintzea eta elkarrekin adostutako ordain-sari duina erabakitzea funtsezkoa da sortzaileen lana sozialki aitortzeko eta profesionalki bideragarri egiteko.
- Sortzaileen lanaren berezitasunari begiraturik, PFEZ berezi baten aukerak aztertu eta landu behar dira. Sortzailearen jarduna etengabekoa da, baina haren onura ekonomikoa noiz-behinkakoa da. Ohiko jardun ekonomikoei dagozkien arauak desegoki gertatzen dira sortzaileen jardunari begiraturik gero. Egokitzapena behar dute arauok sorkuntzaren bizitasuna eta iraunkortasuna bermatu nahi baditugu gure Herrian, eta gure Lurraldeetan. Foru Aldundiekin batera landu beharrekoa izanik, HAKOBAN sakontzeko gaia da hau ere.

- Espainiako Kongresuan lantzen ari diren "Sortzailearen Estatutua"rekin osagarri eta koherente izan behar lukete euskal erakundeok erabakitzen ditugun neurriek. "Estatutu" horretan planteatzen diren neurri batzuk oraingoz Espainiako Gobernuaren eskumenak dira. Guk gure ahalmenaren esparruan saiatu behar dugu eragiten eta laguntzen sortzaileen lan-duintasunean.

### Ikus-entzunezkoen goraldiari erantzun

Kultura industrien artean, ikus-entzunezkoaren alorrean ikusten da hazkunderako gaitasunik handiena eta, beraz, hurrengo urteetan apusturik nabarmenena egiteko esparrua. Azken garaian oso gora egin du euskal zinemagileen kalitate mailak, ikusleak erakartzeko gaitasunak, adituen aitortzak, eta nazioarteko hedapenak. Goraldi horri bere neurrian erantzuteko, orain arteko politika publikoak koska bat gora egin behar daude. Film gehiago, film hobeak eta anitzagoak ekoizten dira orain Euskadin. Zinemagileen sormena eta profesionaltasuna, politika publikoak eta Euskal Telebistaren konpromisoa giltzarri dira egungo zinemagintzaren loraldia ulertzeko, eta etorkizunari begira, sustatzeko eta bermatzeko.

- Jaurlaritzaren deialdietatik urtean film bat gehiago lagundu ahal izateak euskal ekoizpena nabarmen dinamizatuko luke.

- Aldi berean, ETBk euskal film gehiagotan parte hartzeko edo haien eskubideak erosteko ahalmenak gora egin beharko luke.
- Ikus-entzunezkoen alorrean zinematik bezain garrantzitsu ari da bilakatzen sailen sorkuntza eta ekoizpena. Jaurlaritzatik telesailen gidoigintza sustatu beharko genuke, eta ETBtik sailen ekoizpena, euskaraz sortutakoari lehentasuna emanaz.
- Ikus-entzunezkoen eta zinemagintzaren esparrua erabat aldatzen ari da. Beren-beregi Internetarako eta sareetarako sortutako produktuak behar-beharrezkoak ditu ikus-entzunezkoen industriari eta bere hizkuntza minorizatuaren alde egiten duen herriak. Euskarazko ekoizpenei emango zaie lehentasuna.
- Animazioak garrantzi handia izan du ikus-entzunezkoen euskal industrian, bai eta euskal kulturaren eta euskararen transmisioan ere. Sektoreak berak, ikuslegoaren ohiturek eta publiko gazteenaren joerek erabateko aldakuntza bizi duten honetan, euskal animazioaren bideragarritasunari hausnarketa berezia zor zaio, sektorea suspertzeko, baliabide berriak emateko eta aukera berriak zabaltzeko asmotan.



## Nazioartekotasuna bultzatu

Nazioartekotasuna behar-beharrezkoa bilakatu da, kultur sorkuntzarako, sortzaileak profesionalizatu ahal izan daitezen; kultur ekoizpenerako, kultur enpresak ekonomikoki bideragarri gerta daitezen.

Merkatuaren bidez, nola sare kulturalen bidez, edo biak uztarturik, euskal kulturaren ekoizpenak munduan hedatzen lagundu behar dute politika publikoek, merkatuetan lehiatzeko eta merkatuetatik at, ekonomikoak ez diren baloreak gizarteratzen dituzten kultur sareen bidez hedatzeko modua eginaz.

BASQUE. markak indar berria emango dio euskal kulturari nazioartean. Aukera handi hori zehaztu, sustatu eta eraginkor egin behar dugu hurrengo urteotan. Ahalegin iraunkorra izango da, legealdiz legealdi, *Euskadi Basque Country* markaren logikarekin koherentzian.

- Sortzaileen nazioarteko harremanak kulturaren esparru guztietan sustatu behar dira. Egonaldi edo "erresidentzi"ek funtzio hori dute, nagusiki: sortzaileen eta ekoizleen nazioarteko harremanak ahalbidetzea. Museo eta jaialdi nagusiak, nazioarteko eragina eta lan esparrua dutenez, harreman horien bideratzaile eta suspertzaile dira. Memoriaren alorretik ere euskal ondarea mundu zabaleko ezagutzaren eta kulturaren sareetan txertatzeko ahalegina egin behar dute.

- Euskal ekoizpenek eta euskal kulturak badute nazioartean interesgarri izateko edo/eta salgarri gertatzeko maila frogatua. Nazioarteko azokak prestatzen, profesionalizatzen, eraginkor egiten urrats handiak egin dira azken urteotan. Azoka gehiagotara zabaltzeko garaia da, kultur ekoizpenaren alor guztietan: zinemagintza, antzerkigintza, dantza, musikagintza, ilustrazioa ...

- Ikusizko arteetan, programa berri bat jarriko da abian, munduan barrera bienal, azoka eta museo nagusietan arduradun direnak Euskadira ekarri, bertako artisten tailerrak eta jarduna sakonki ezagut ditzaten.

- Euskal Herriaren iraganean ere nazioartekotasunaren aldarrikapena egiteko garaia da: dela Elkanoren figura, dela Balenciaga, edo Chillida, zein sortzaile garaikideen ibilbidea, Euskal Herriaren historiari bertakotasuna eta mundutasuna uztartu behar diren eta uztartzeko grinaren ikuspegitik begiratu behar diogu. Memoria hori eguneratzea ongaria gertatuko zaigu geure egungo kultur sorkuntzaren desafioei aurre egiteko.

- Euskal film laburrak nazioartean ezagutarazteko eta nazioarteko kultur sareetan txertatzeko *Kimuak* lan ildo arrakastatsuari segida eman nahi zaio, euskal zinemagintza munduan ezagutzera emateko.

## Euskal kulturaren ikusgarritasuna areagotu

Euskal kulturaren ikusgarritasuna –euskaldunen artean Euskadin sortzen den, eta bereziki euskaraz sortzen den kulturarekiko atxikimendua, jakinmina eta ezagutza areagotzea– giltzarri dira gure kultur politiketan. Alde askotatik erantzun behar zaio, eta guztiok eutsi beharko diogu euskal kulturaren ikusgarritasunaren desafioari: kultur politikek, sektoreetako eragileek, sortzaile edo ekoizle bakoitzak, kulturaren sozializatorako erakundeek, hedabideek, erabiltzaileek... kulturagileek eta kultur zaleek.

Publiko berriak erakartzeko edo fidelizatzeko lan ildoak elkarre sektorial profesional guztien eginkizunetan txertatu behar dira. Gizarte antolamenduek eta kultur ekintzaileek sortutako ekimenak eta egindako proposamenak deialdi baten bidez lagunduko dira. Horrez gain, komunikazioa eta publizitatea ezinbesteko erramintak dira ikusgarritasuna lortzeko orduan.

- Euskadi Sariak aitorten politikak dira, gizartearen aurrean sortzaileen lanaren garrantzia erakundeetatik aitortzeko modu bat. Badira, ordea, komunikatorako eta publizitaterako aitzakia ere. Egile eta obra irabazleen publizitaterako erabili nahi dira Euskadi Sariak.

- Literatura sari horien osagarri, ingelesezko laginak itzultzea, prestatzea, eta eLiburutegian eskura jartzea proposatzen da, Euskadi Sariaren aitzakian kanpoko editore nahiz adituek euskal literaturaren ezagutza izan dezaten.

- Ilustrazioaren Euskadi Sariari txirringularitzako Euskadiko Itzuliaren kartela enkargatuko zaio, gerra aurreko tradizioarekin zubi eginaz.
- Arte plastikoetarako Gure Artea Sarietan, alorraren berezitasunarengatik, obra erostea edo obra berria ekoiztea izan beharko luke gizarteratzeko modua.

## **Berrikuntza sustatzuz, kultura eta sormen industriak sendotu**

Kultur eta Sormen Industrietarako politiketan (KSI) aldakuntza sakona gertatzekoa da 2019an. Egikaritu eta gauzatu egingo da Kultura Sailaren eta Garapen Ekonomikorako Sailaren arteko lankidetzaz. SPRIren eginkizuna erabakiorra izango da hemendik aurrera.

Kultura Sailburuordetzaren, SPRIren eta Innobasqueren lankidetzaz, hiru arlo nagusi jorratuko dira datozen urteotan:

- KSI Berritzaile berrikuntzarako programak mantentzea eta eguneratzea.
- KSlen eremua egituratzea, pilotaje taldeak eraginkorragoak eginaz, enpresen parte-hartzea areagotuz, sektoreen antolakuntza eta sektoreen arteko zeharkakotasuna bultzatuz.
- Zerbitzuak eskaintzea, sektorean berrikuntza suspertzeko, enpresen parte hartzea aktibatuz eta laguntza publikoen eraginkortasuna bermatzeko.

Basque DC2 (Basque District of Culture and Creativity: Kulturaren eta Sormenaren Euskal Barrutia) sortu eta egituratuko da, sektore honen berrikuntzarako politikak bateratzeko. Barrutiaren kontzeptuak KSlen sektorea trinkotzen lagunduko du, erreferente bakarra izango da, "leihatila bakarra"ren moduan, KSletarako. Lurralde maila ezberdinetan, abian diren ekimenen egituraketa eta optimizazioa bilatuko ditu, kualifikatutako eta espezializatutako laguntza zerbitzuak eskainiko ditu, sektoreko enpresen eta pertsonen etorkizuneko gaitasunak eta aukerak hobetzeko, euskal KSlen nazioartekotzeko eta nazioarteko talentua Euskal Herriratzeko aukerak zabalduko ditu.

Basque DC2ren funtzio nagusiak hauek dira:

- KSletako profesional eta enpresei informazioa eta aholkua ematea, berrikuntza sustatzeko.
- Sareak eta sinergiak sortzea eragileen artean eta gainerako sektoreetako eragileekin.
- Nazioartekotzea erraztea
- Nazioarteko sareetan parte hartzea

KSlen hamabost azpisektoreen artean indartsuenak eta estrategikoenak identifikatuko dira, lurraldez lurralde eta hiriburuz hiriburu, lehentasunak ezarri ahal izateko. Euskadik, oro har, eta Lurralde Historiko bakoitzak, baita ere, espezializazio adimendunaren ildotik joko dugu, gure aukerak eta indarguneak ondo ezaguturik.

Bestalde, berrikuntzaren kontzeptu zabalago eta osoago bat landu eta garatu beharko dugu, berrikuntza teknologikoari berrikuntza soziala eta berrikuntza ez teknologikoa erantsiz.

## 5.2./

# KULTUR ESKAINTZA

Kultura eskaintza bi atal nagusitan bereizi dugu. Kultura herritarren eskura jartzeko helburua duten sare publikoak -liburutegien sarea eta antzokien sarea-, batetik, eta euskal gizarteari bezainbat mundu zabalari kultura eskaintza erakargarria egiten dioten museo eta jaialdi nagusiak, bestetik.

Lehenari dagokionean, oraingo politikari eustez gain, datozen urteotan eginkizun nagusi izango duguna eLiburutegiaren garapena izango da.

## eLiburutegiaren eskaintza hobetu eta hedatu

eLiburutegia (irakurketa publikorako euskal liburutegi digitala), egitasmo berritzailea izan da, zerbitzu egoki bat emateaz gain hainbat berrikuntza eragin dituen liburutegizaren eta irakurketaren sisteman (euskal editoreek formatu digitalean argitaratzea suspertu du, liburutegien sarea bateratzeko prozesua bizkortu du, etc.). Orain, euskal herritarrei zerbitzu aberatsagoa emateaz gain, euskal zinemagintzan eta euskal musikagintzan eragin beharko luke eLiburutegiak, lehen liburutegizaren egin bezala.

2018an hasi zen eLiburutegia zinema ere eskaintzen. Bidea zabaldu zen, baina ez da behar adina urratu eta erabili. Zinemak plataforman daukan presentzia hobetu egin behar da eta, batez ere, eLiburutegiak egiten duen eskaintzaren berezitasuna azpimarratu behar da. Kulturaren eskaintza digitalean eta, kasu honetan, ikus-entzunezkoen kontsumorako eskaintza digitalean, politika publikoei zer dagokien eta, batez ere, euskal zinemagintzaren alde eta euskararen alde eskaintza digital publikoak zer egin lezakeen definitzen jarraitu behar dugu.

Hiru ardatzen inguruan gauzatu genuke berezitasun hori: euskal zinema, zinema euskaraz eta euskal zinemaldiak. Euskal zinemaren ataria behar luke eLiburutegiak,

euskaldunek, Euskal Herrian edo euskal gaiez sortutako guztiaren eskaintza egiten duen plataforma izan beharko luke, Euskadik zinemagintzaren kulturarako dituen baliabideei dimentsio berria emango diena.

- Euskal Zinemagintza osoa eskaini beharko luke eLiburutegiak, euskaraz sortutakoa, euskaldunek sortutakoa, Euskadin ekoizitakoa.
- Euskaraz bikoiztu edo azpidatzi diren filmen topalekua ere izango da eLiburutegia, zinema euskaraz ikusteko eskaintza digital nagusia.
- Euskadin antolatzen diren zinemaldien lankidetzaz, haietan urtero ematen diren filmen aukera bereziak eskaini beharko genituzke. Euskadin egiten diren zinemaldien ekarpenak aberastuko du esparru publikoak euskaldunoi egin diezaiekeen eskaintza. Euskadiko Filmategiaren lankidetzaz bereziki erabakiorra izango da alor honetan.
- Euskal zinema eta euskaratutako zinemagintza nonahiko zinemaren aukera bereziarekin osatua eskainiko luke horrela eLiburutegiak, gainerako plataformekiko nortasun propioa garatuko duena.

Etengabe egin behar da eLiburutegiaren komunikazio eta publizitatea, herritarren artean ezagunagoa bilaka dadin. Era berean, eLiburutegiko bazkide izateko bideak erraztu egingo dira, aukerak emanaz ikastetxeei, euskaltegiei, etc.



## Museoen euskal sistema indartu

Nazioarteko proiektzioa duten museoek, kultur zentroek eta jaialdiek Euskadi kulturalki erakargarria egiten dute munduaren aurrean. Funtsezkoak dira euskal sortzaileen lanak mundu zabaleko zirkuitoetan txertatzeko xedean. Eragin nabarmena dute euskal hirietako kultura eskaintzan, dinamismoan eta turismo kulturalean.

Erabakigarriak gertatzen dira, beraz, euskal gizarteari egiten zaion kultur eskaintzarako, Euskadiren irudirako, euskal sortzaileen nazioartekotzerako, kultur gintzaren bikaintasunerako eta hirien garapen ekonomikorako.

- Museoek beren bildumak aberastea ahalbidetzea bereziki garrantzitsua da azken urteotan euskal arteak izan duen loraldiaren memoria bertan txerta dadin, jasoa izan dadin, euskal esparru publikotik aparte gera ez dadin. Eta euskal arte garaikidea nazioarteko artearekin elkarriketan egon dadin, museoen bildumetan eta erakusketetan. Euskaldunon arteari lehenetsua emanaz, Euskadiko bildumak mundu guztiko arteaz hornitzen jarraitzeak berebiziko garrantzia dauka.
- Euskadiko arte museo nagusiak sistema baten moduan ulertu behar dira. Guggenheim Bilbao Museoa, Bilboko Arte Ederren Museoa, Artium, Cristóbal Balenciaga Museoa, Tabakalera, Chillida Leku... osagarri dira, eta osagarritasunean sakondu behar lukete, Euskal herriari nahiz mundu zabalari begira.
- Sistema horrek, diru publikoari esker garatzen den neurrian, konpromiso garbiak hartu eta landu behar ditu euskal sortzaileekin, Euskadiko kultura eta sormen industriekin, euskararekin berarekin eta genero berdintasunarekin.

## Euskadiko Orkestra Sinfonikoa nazioartekotu

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa Jaurilaritzak sustatzen duen egitasmo garrantzitsuenetako bat da. Azken urteotan kalitate mailak gora egin du, egonkortu egin da eta bikaintasunerantz urrats nabariak egin ditu. Baliabideak behar ditu orain, Espainian nahiz Europa guztian bere burua ezagutarazteko eta, horrekin, Euskal Herria (Basque Country), euskal kultura eta euskal musika.

## Euskal Herriko Gazte Orkestra eraberritu

Baina hurrengo urteetan musika orkestralean gertatuko den aldakuntza eta berrikuntza nagusia EGOren eredu berria definitzea eta egikaritzea izango da. Orain 20 urte sortutako ekimena da, ikasketak burutzeko eta mundu profesionalean trebatzeko aukera paregabea eskaini diena euskal musikagile gazteei. Hogei urteotan musika hezkuntzaren panorama nola aberastu den ikusirik, musikagileen profesionaltasunak ere baldintza berriak dituela jabeturik, musikagile gazteei aukera egokiak emateko egokitu egin behar da EGOk (Euskal Herriko Gazte Orkestrak) egiten dien eskaintza. Hurrengo urteetarako Euskal Herriko Gazte Orkestra berritua, indartua eta nazioartekotua izango dugu.

## 5.3./

# MEMORIA BIZIA

## Legedia eta araudia berri

Marko legala berritzen ari gara kultura ondarearen eremuan gertatzen ari diren aldaketei erantzun egokia eman ahal izateko. Kultura Ondarearen Lege berria onartu du Legebiltzarrak aurten. Dokumentu Ondarearen eta Artxibo Sistemaren Legea laster aurkeztuko zaio Gobernuari onespina eman diezaion, eta Legebiltzarrak hurrengo legealdian bere egitea espero dugu. Lege Gordailuaren araudi berria ere laster indarrean egotea espero dugu.

## Kultura ondarearen babesa zabaltzea

Kultura Ondarearen Legeak dakar materiagabeko ondarearen alorra babesteko eta gizarteratzeko eginkizuna. Horren ondorioz, Kultura Ondarea Balioztatze deialdia -%1a bezala ezagutzen den diru-laguntza- zabaltzea egin beharko da, esparru berriok kontuan hartuak izan daitezkeen deialdiaren baitan. Diru-laguntza honen zioa jabego pribatuko edo publikoko ondarea zaintzeko baliabideak eskaintzea da.

Kultura ondarea zaintzeko eta babesteko politiketan, indar berezia hartuko du ondare industrialaren babesak, bere konplexutasunagatik eta bere eragin ekonomikoagatik. Foru Aldundiekin lankidetzan garatu beharko dugu plana, eta batez ere Bizkaikoarekin, lurralde horretan ondare industrialak duen garrantziagatik. Era berean,

Jaurlearitzak ondare industrialerako Bilbon duen gordailuaren etorkizuna argituko da hurrengo urteetan; kokapen berri bat erabakiko da, ondare hori egoki babestua egon dadin, eta gizartearen eskura jarri ahal izan dezagun.

## Ondare immaterialaren babeserako politika bereziak abiarazi

Ondare immateriala zaintzeko, babesteko eta gizarteratzeko eginkizuna indar berri egiten du Kultura Ondarearen Lege berriak. Alor honetarako estrategia berezia diseinatu beharko da eta adostu, bai gainerako erakundeekin, bai ondare immaterialaren "komunitate eroale"ekin. Estrategiarekin batera, euskal ondare immaterialaren inbentariarako eta katalogaziorako irizpideak ezarri, adituekin eta "arituarekin" eztabaidatu eta adostu beharko dira. Halaber, euskal materiagabeko ondarearen "mapa" marraztu beharko da, ondare esparru horren ertzak zehaztu ahal izateko.

Urteetan, Legerik eduki gabe ere, ondare immateriallean garatzen joan diren alorretan egin izandako lanak abiapuntu egokiak dira politika publikoak diseinatzeko eta abiarazteko. Horrela, euskal dantzaren alorrean, herri inauterien alorrean, etnografian eta bertsolaritzan dagoeneko egin diren inbentariatzeko, katalogatzeko, gordetze eta gizarteratzeko lanak sakondu eta bateratu egingo dira.

Horretarako guztirako, Kultura Ondarearen Zuzendaritza indartuko da, teknikari berriak beharko baitira alor berri honi erantzuna emateko, teknikari, gainera, alor honetan aditu edo trebatuak.

## Euskadiko Filmategia sendotu

Memoriarako erakundearen artean, Euskadiko Filmategian aurreikusten ditugu aldaketarik handienak. Bere izaera nazionala indartuta geratuko da Bizkaiko Foru Aldundia Euskadiko Filmategiaren Patronatuan sartzearrekin, Jaurlearitzaz gain hiru Foru Aldundiak egongo baitira bertan. Filmategiaren programazioa ere hiru hiriburuetara zabaltzeko da, modu egonkorrean.

## Arte eszenikoen (antzerkia eta dantza) gordailu digitala sortu

Arte eszenikoen alorra da (antzerkia eta dantza, modalitate guztietan) bere memoria zaintzeko, gordetzeko, lantzeko eta sortzaile berrien esku ipintzeko baliabide instituzionalik ez daukan bakarra. Ez dugu erakunderik arte eszenikoen ondarea jasotzeko eta gizarteratzeko. Hainbat elkarte eta hainbat eragile aritu izan da ondare hori dokumentatzen eta jasotzen, baina ez dago guztia bateratuko, osatuko eta horren babesa bermatuko duen gunerik. Gune hori esparru digitalekoa aurreikusten dugu, ez

litzatekeelako egingarria izango gordailu fisiko bat egokitzea ondare fisikoa gordetzeko. Arte Eszenikoen memoriarako erakunde digitala definitzea, antolatzea eta abian jartzea da hurrengo lau urteetarako memoriarako erakundeen alorrerako ekimen nagusia.

## **Euskal Liburutegia (euskal kulturaren liburutegi digitala) eraiki**

Euskadiko Liburutegi Nazionala 2007ko Euskadiko Liburutegien Legeak arautu zuen. Liburutegi fisikoa aurreikusten zen bertan, funts fisiko eta digitalez hornitua. Funts historiko fisikoak Foru Aldundien Liburutegietan (eta Udaletakoetan) babestuak daudela ikusirik, egingarritasunaz kezkatutik, eta aro digitalean erantzun digitalak eman beharrez konbentziturik, Liburutegi Nazional Digitalaren egitasmoa ari gara lantzen. Hurrengo lau urteetan, definitua, egituratua eta abian jarria behar luke.

Liburutegi Nazionalaren funtzioak beteko dituzenez, Euskal Liburutegiak euskaldunek sortutakoa, euskaraz sortutakoa, Euskadin ekoizitakoa eta euskal gaien inguruan sortutakoa jasoko luke. Literaturan, liburuetan, baina baita ere zineman, musikan, argazkietan, irudietan, etc. Alegia, euskal kultura osoaren bilgune eta bideratzaile bilakatuko da Euskal Liburutegia. Horregatik esaten diogu euskal kulturaren liburutegi edo atari digitala.

Gordailu eta atari digitala izango denez, eta Liburutegi Nazionalaren funtzioa duenez, sistema oso baten erpina izango da, sistemaren bateratasuna, egokitasuna eta eskuragarritasuna bermatuko dituena. Ordenatzea, partekatzea eta nazioartekotzea dira Euskal Liburutegiaren xede nagusiak.

Euskal Liburutegiak jauzi nabarmena suposatuko du euskal kulturaren babesari, eskuragarritasunari eta ikusgarritasunari dagokionean, bai eta Euskadiko Agenda Digitalean ere.

## 5.4./ **GOBERNANTZA**

Gobernantzari dagokionean, ahalegin nagusia antolakuntzan egin beharko da.

Sailburuordetzaren lan-taldea sendotu egin behar da, lege aholkularitza indartuz eta nazioartekotasunerako ahalmena gehituz. Era berean, teknikarien espezializazioa eta trebakuntza kezka berezia da gure lan-taldeetan, bereziki kultura ondareari dagokion alorretan, beren eginkizunen izaera gero eta teknikoagoagatik.

Sailburuordetzako bi zuzendaritzak aparte daude egun, baita fisikoki ere. Nabaria izanik lankidetzan, koordinazioan eta zeharkakotasunean aitzinatzeko premia, Sailburuordetzaren Zuzendaritza eta zerbitzu guztiak leku fisiko berean biltzeak erabateko garrantzia dauka.

Euskal Liburutegirako zerbitzu berria sortu behar da Liburutegi Nazionalaren eginkizunei erantzun ahal izateko, Liburutegi Zerbitzuarekin koordinaturik.

HAKOBA, erakundeen arteko koordinaziorako batzordea indartu behar da, kultur politikak osagarriagoak eta eraginkorragoak izan daitezen.

Kulturaren Euskal Kontseiluaren definizioa, konposizioa eta eginkizunak birpentsatu egin behar dira, sektoreen berrantolaketa burutu ondoren, kulturgileekiko koordinazio batzorde nagusia izan dadin.

Kulturaren Euskal Kontseiluan, Kultura Auzolanean programa garatzen jarraituko dugu. Kontseiluak XI. Legealdian garatutako gaien inguruko balantzea eta balorazioa egingo du eta beraien jarraipena edo amaieraren inguruko hausnarketa egingo du. Jorratu beharreko gai berriak ere adostuko ditu.

Kulturaren Euskal Behatokia indartu egin behar da, kultur ohituren azterketa bost urtero egin ahal izateko, ohitura horien aldakuntza sakonak hobeto ezagutzeko xedeaz.

## 5.5./ **KONPROMISOAK, EKIMENAK, EKINTZAK**

Hurrengo urteetarako konpromiso, ekimen eta ekintza nagusiak jasotzen dira taula hauetan.

- Taula orokorretan (ikus eranskina) erabiltzen diren zenbaki eta formulazio berberak erabiltzen dira hemen.

Konpromiso hauek ahalegin ekonomikoa dakarte beraiekin. Kulturarako aurrekontuetan igoeraren beharra planteatzen da beraz, egoera ekonomikoak ahalbidetuko balu eta Jaurlaritzaren lehentasunak errespetatuz, beti ere.

# Sorkuntza eta Ekoizpena

## 1. KONPROMISOA EUSKAL KULTURAREN SORKUNTZA ETA EKOIZPENA SENDOTU

### 1.1. ekimena SORKUNTZA SUSTATU ETA AHALBIDETU

1.1.2.- Sortzaileen lan-baldintzak hobetu, prekaritateari aurre egiteko, esparru publikoan haien lanarekiko aitortza sustatuz, eta haien jardunaren berezitasuna fiskalitatean zainduz.

### 1.2. ekimena EKOIZPENA GARATZEKO POLITIKAK INDARTU ETA EGUNERATU

1.2.1- Ikus-entzunezkoen egungo bizitasunari erantzun egokia eman, film gehiago ahalbidetuz, telesailak sustatuz eta formato berriak landuz.

1.2.2- Arte eszenikoetan, liburugintzan eta musikan, ekoizpen sistema indartu.

### 1.4. ekimena NAZIOARTEKOTASUNA SUSTATU

1.4.1- Euskal kulturaren BASQUE. marka garatu, Etxepare Euskal Institutuarekin lankidetzan, Euskal Herriko sorkuntzaren nazioartekotzea indartzeko.

1.4.2- Nazioarteko azoketan, euskal ekoizpenaren presentzia indartu.

1.4.3- Munduko eragileak euskal sorkuntza ezagutzera erakarri eta eremu jakinetan, gure mugaz gaindiko leihoak zabaltzeko hitzarmenak egin, Euskal Herriko Sorkuntza Espainian eta munduan ezagunagoa egiteko.

## 2. KONPROMISOA EUSKAL KULTURAREN IKUSGARRITASUNA AREAGOTU

### 2.2. ekimena SARIEN ERAGINA AREAGOTU, PUBLIZITATEAZ

2.2.1- Euskadi Sariak indartu, liburu irabazleen publizitatea eginaz.

### 2.4. ekimena KULTURAREKIKO EZAGUTZA ETA ZALETASUNA ZABALDU

2.4.3.- Irakurzaletasun Plana burutu eta aplikatu.

## 3. KONPROMISOA BERRIKUNTZA SUSTATUZ, KULTURA ETA SORMEN INDUSTRIAK INDARTU

### 3.1. ekimena KSletarako GOBERNANTZA MOLDEA EGITURATU

3.1.2- Basque DC2 Euskadiko Sormen eta Kultur Barrutiaren egitasmoa abiarazi, zerbitzu berriak eskainiz.

### 3.2. ekimena KSI SEKTOREAN BERRIKUNTZA SUSTATU

3.2.1 KSI sektorerako diru-laguntza tresnak berrantolatu eta indartu, Berrikuntza eta I+G+b-n oinarrituz.

## Kultur eskaintza

### 4. KONPROMISOA KULTURA GIZARATERATZEKO SISTEMA PUBLIKOAK SENDOTU

- |              |   |
|--------------|---|
| 4.1. ekimena | LIBURUTEGIEN SISTEMAREN BATERATASUNA ETA BERRIKUNTZA SUSTATU          |
| 4.2. ekimena | eLIBURUTEGIA GARATU, EZAGUTARAZI ETA EDUKI BERRIEZ HORNITU            |
| 4.3. ekimena | ANTZOKI SAREAREN EUSKAL ARTE ESZENIKOEKIKO LOTURA ERAGINKORRAGOA EGIN |
| 4.4. ekimena | MUSEOEN EUSKAL SISTEMA SENDOTU, LEGEA GARATUZ ETA BABESA EGONKORTUZ   |

### 5. KONPROMISOA NAZIOARTEKO ERAGINA DUTEN AZPIEGITURA KULTURALEN GARAPENA AHALBIDERATU ETA BERAIEI ERAGIN "TRAKTOREA" AREAGOTU

- |              |  |
|--------------|--|
| 5.1. ekimena | NAZIOARTEKO PROIEKZIOA DUTEN MUSEOEN EUSKAL SISTEMA SENDOTU ETA HAREN ERAGIN "TRAKTOREA" AREAGOTU  |
|              | 5.1.1- Guggenheim Bilbao Museoaren funtzionamenduaren bikaintasuna bermatzeko eta bilduma osatzeko ahalmena ziurtatu.  |
|              | 5.1.2- Bilboko Arte Ederren Museoaren birmoldaketa eta funtzionamenduaren bikaintasuna ahalbidetu.   |
|              | 5.1.3.- Artium Museoarekiko Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa sendotu, Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa izateko eginkizuna goren mailan betetzea, eta nazioarteko hedadura duten museoek euskal sistemaren baitan indartsuago jokatzeko ahalbidetu. |
|              | 5.1.4- Cristóbal Balenciaga Museoaren nazioarteko eragina eta modaren sektorea egituratzeko eginkizuna ahalbidetu.   |
|              | 5.1.5- Donostiako Tabakaleraren garapena ahalbidetu.   |
|              | 5.1.6- Chillida Lekuren bizitasuna, nazioartekotasuna eta gizartearekiko hurbiltasuna bermatzen lagundu.   |
| 5.3. ekimena | EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA NAZIOARTEKOTU ETA EUSKAL HERRIKO GAZTE ORKESTRA ERABERRITU   |
|              | 5.3.1- Euskadiko Orkestraren Nazioarteko proiektioa sustatu.   |
|              | 5.3.2- Euskal Herriko Gazte Orkestra eraberritu eta indartu.   |

## Memoria bizia

### 6. KONPROMISOA EUSKAL KULTURAREN MEMORIA ZABALDU ETA BIZIBERRITU

- |              |   |
|--------------|---|
| 6.1. ekimena | ARAUDIA EGUNERATU (APROBATU ETA INDARREAN JARRI)  |
|              | 6.1.1- Kultura Ondarearen Legea indarrean jarri.  |
|              | 6.1.2- Euskadiko Dokumentu Ondarearen eta Artxibo Sistemaren Legea Gobernuan onartu, Legebiltzarrean adostu eta indarrean jarri.  |
|              | 6.1.3.- Kulturaren Lege Gordailuaren araudi berritua onartu eta berrantolaketa gauzatu.   |
| 6.2. ekimena | ONDAREAREN BABESERAKO POLITIKAK EGUNERATU, ALOR BERRIAK ZAINDUZ   |
|              | 6.2.3- Ondare higiezina, higikorra eta industrialia zaintzeko deialdia sendotu.   |
| 6.3. ekimena | MATERIAGABEKO ONDAREA BABESTEKO ETA GIZARATERATZEKO POLITIKAK GARATU  |
|              | 6.3.2- Materiagabeko ondarearen babeserako deialdiak zabaldu.   |
| 6.4. ekimena | MEMORIRAKO ERAKUNDEEN SISTEMA SENDOTU, ELKARLANA ETA BERRIKUNTZA SUSTATUZ   |
|              | 6.4.3- Euskadiko Filmategia ikusentzunezko euskal ondarearen giltzarri bihurtu eta bere programazioa hiru hiriburuetarara hedatu. |
|              | 6.4.4- Arte Eszenikoen Memoriarako Gordailu Digitala sortu.   |

**7. KONPROMISOA EUSKAL KULTURAREN LIBURUTEGI DIGITALA ERAIKI****7.1. ekimena EUSKAL KULTURAREN LIBURUTEGI DIGITALAREN ERREPOSITORIOA ETA PLATAFORMA SORTU**

7.1.2.- Euskal kulturaren eduki digitalak kalitatetik handienera eta modu seguruan gordetzeko sistema parte-hartzailea garatu.

**7.2. ekimena EUSKAL KULTURAREN LIBURUTEGI DIGITALAREN FUNTSAK KUDEATU**

7.2.1- Euskal Kulturaren Liburutegi Digitala alor guztietako funtsez hornitu eta funtsak eskuragarri ipini.

**7.3. ekimena EUSKAL KULTURAREN LIBURUTEGI DIGITALAREN KUDEAKETA ETA KOORDINAZIO SISTEMA EGITURATU**

7.3.1- Zerbitzu berria sortu Euskal Kulturaren Liburutegi Digitalaren kudeaketarako, Kultura Ondarearen Zuzendaritzan.

## Gobernantza

**8. KONPROMISOA ERANTZUNKIDETASUNEAN SAKONDU GOBERNANTZAREN ALOR GUZTIETAN: ORDENATU ETA PARTEKATU****8.2. ekimena KULTURAREN EUSKAL KONTSEILUA ETA "KULTURA AUZOLANEAN" PROGRAMA SENDOTU**

8.2.1.a- KEKaren ordezkaritza, parte-hartzea eta eginkizunak berdefinitu.

8.2.2.a- Kultura Auzolanean-en egungo faseari amaiera eman, XI. Legealdian martxaan jarritako proiektuen balorazioa eginez. Beraien itxiera edo jarraipena baloratu.

8.2.2.b- Hurrengo legegaldian landu beharreko proiektuen gai-zerrenda adostu.

8.2.2.c- "Kultura Auzolanean" programan egindako azterketa eta txostenen hedapena eta komunikazioa hobetu.

**8.4 ekimena SAILAREN BAITAKO ETA SAILEN ARTEKO KOORDINAZIOAN SAKONDU**

8.4.1- Sailburuordetzaren lantaldea sendotu, bi zuzendaritzak espazio bakarrean bildu eta barne egituraketa egungo premiei eta lan-moldeei egokitu. Sailburuordetzaren jarduna modu ordenatu eta jarraikorrean gizarteratu.

**8.5. ekimena EZAGUTZA POLITIKAK KULTUR POLITIKEN MUINEAN IPINI**

8.5.1- Kulturaren Behatokiaren eginkizun eremua zabaltu eta estatistika lanak maizago egin.

**HIZKUNTZA BERDINTASUNA BERMATU, EUSKARAZKO SORKUNTZA ETA EKOIZPENA LEHENETSIZ, ETA EUSKARAREN ERABILERA BULTZATUZ KULTURA EKIPAMENDU GUZTIETAN**

Zeharkako egitasmoa izanik, aurrekontuaren partida guztietan eragiten du.

**GENERO BERDINTASUNA AITZINARAZI, SORKUNTZAN ETA EKOIZPENEAN ETA KULTUR EKIPAMENDUETAN**

Zeharkako egitasmoa izanik, aurrekontuaren partida guztietan eragiten du.

# 6/

# Eranskinak



# Sorkuntza eta ekoizpena

## 1. KONPROMISOA EUSKAL KULTURAREN SORKUNTZA ETA EKOIZPENA SENDOTU

| 1.1. ekimena | SORKUNTZA SUSTATU ETA AHALBIDETU  |  |
|--------------|---|--|
|              | 1.1.1- Sorkuntza proiektuetan abiatzeko, baliabide ekonomikoak eskaini, musikan, antzerkian, dantzan, gidoigintzan eta literaturan.   | 1.1.1.a- Sorkuntzarako deialdi konkurrenteen irizpideak bateratu eta eguneratu.  |
|              | 1.1.2.- Sortzaileen lan-baldintzak hobetu, prekaritateari aurre egiteko, esparru publikoan haien lanarekiko aitortza sustatuz, eta haien jardunaren berezitasuna fiskalitatean zainduz. | 1.1.2.a- Sistema publikoan, sortzaileen ordainketa minimoak eta kontratu egokiak erakundeen artean hitzartu.<br>1.1.2.b- PFEZa eta zergen arauak sortzaileen berezitasunei egokitu, Foru Aldundien arauen bateratasuna bilatuz.<br>1.1.2.c- Sortzaileen jardunaren balioztatzea lortu, Hezkuntzan eta Lanbiden.  |
|              | 1.1.3- Sorkuntzarako testuinguru egokia indartzen duten politikak garatu eta sendotu.   | 1.1.3.a- Sormen Lantegiak izeneko sorkuntza guneen definizioa zehaztu eta berrikuntzarako politiketara egokitu.<br>1.1.3.b- Sortzaileen "egoitzen" mapa egin, ordenatu, eta profesionaltasuna lantzen dutenak lehenetsi.<br>1.1.3.c- "Eremuak", ikusizko arteetarako egitasmoaren kudeaketa arazoak konpondu eta irismena areagotu.  |
| 1.2. ekimena | EKOIZPENA GARATZEKO POLITIKAK INDARTU ETA EGUNERATU   |  |
|              | 1.2.1- Ikus-entzunezkoen egungo bizitasunari erantzun egokia eman, film gehiago ahalbidetuz, telesailak sustatuz eta formato berriak landuz.  | 1.2.1.a- Urtean film luze bat gehiago lagundu Jaurilaritzaren deialdietan.<br>1.2.1.b- Animazioaren sektorea suspertzeko plana sektorearekin adostu.<br>1.2.1.c- EiT Bren zinemarako baliabideak handitu, film gehiagotan partaide izateko.<br>1.2.1.d- EiT Bri euskarazko telesailak ekoizteko baliabideak eman.<br>1.2.1.e- Molde berriko ikus-entzunezkoen ekoizpena sustatu (web-sailak, telesaietarako gidoiak, film luze esperimentalak...).     |
|              | 1.2.2- Arte eszenikoetan, liburugintzan eta musikan, ekoizpen sistema indartu.  | 1.2.2.a- Antzerkirako eta dantzarako deialdiak bateratu eta parekotu.<br>1.2.2.b- Diru-laguntzetan, zabalkuntza eta hedapena sustatu eta baloratu.   |
|              | 1.2.3- Liburuen ekoizpena, obrak hedatzeko estrategiarekin osatu.   | 1.2.3.a- Liburuen ekoizpenerako deialdian, sustapenen eta marketing estrategiak baloratu.<br>1.2.3.b- Euskal literatura gaztelaniara itzultzeko diru-laguntzak, argitalpenak babesteko deialdietan integratu.<br>1.2.3.c- Haur eta gazte literaturari bultzada berezia eman, gai, formato eta tratamendu berriak sustatuz.<br>1.2.3.d- Komikigintzarako diru-laguntzak mantendu; liburu grafikoaren laguntzetan, argitalpenak babesteko bidea aztertu. |

### 1.3. ekimena

#### SORTZAILEEN ETA EKOIZLEEN TREBAKUNTZA AHALBIDETU

1.3.1- Ikus-entzunezko alorrean, profesionalen trebakuntzarako aukerak bermatu, Zineuskadiren eta Creative Europe Bulegoaren bidez.

1.3.1.a- Gidoigintzarako, koprodukziorako eta nazioartekotzerako ikastaroak mantendu.

1.3.1.b- Emakume zinegileei bultzada emateko NOKA programari jarraipena eman.

1.3.1.c- Inbertsioak erakartzeko eta inbertsoreentzako ikastaro bereziak antolatu.

1.3.2- Elkarteen bidez, profesionalen etengabeko trebakuntza sustatu eta ordenatu.

1.3.2.a- Elkarreek trebakuntzarako antolatzen dituzten programen mapa egin.

1.3.2.b- Mapa hori ordenatu, partekatu eta osatu.

1.3.3- Euskal kulturaren ekoizpenen inguruko komunitate sozialak eraikitzen eta sendotzen trebatu (literaturan, arte eszenikoetan, musikan, etc.).

1.3.3.a- Sare sozialetan, jarraitzaileen eta erabiltzaileen komunitateak sortzeko eta dinamizatzeko trebakuntza orokorra eskaini.

1.3.3.b- Sare sozialetan eragiteko trebakuntza espezifikoak (alorrez alorrekoa) eskaini.

### 1.4. ekimena

#### NAZIOARTEKOTASUNA SUSTATU

1.4.1- Euskal kulturaren BASQUE. marka garatu, Etxepare Euskal Institutuarekin lankidetzan, Euskal Herriko sorkuntzaren nazioartekotzea indartzeko.

1.4.1.a- Etxepare Euskal Institutuaren ildotik, BASQUE. marka hedatu eta alor guztietan aplikatu.

1.4.1.b- Film Comissionen arteko lotura eta koordinazioa sakondu, Filming Basque Country marka indartzuz.

1.4.2- Nazioarteko azoketan, euskal ekoizpenaren presentzia indartu.

1.4.2.a - Euskal presentzia BASQUE. markaz indartu azoketan. (zinemagintzan, antzerkian, dantzan eta musikan).

1.4.2.b - Euskal presentzia azoka berrietara zabaldu (zinemagintzan, antzerkian, dantzan eta musikan).

1.4.3- Munduko eragileak euskal sorkuntza ezagutzera erakarri eta eremu jakinetan, gure mugaz gairikoa leihok zabaltzeko hitzarmenak egin, Euskal Herriko Sorkuntza Espainian eta munduan ezagunagoa egiteko.

1.4.3.a- Gaztelera itzultako euskal literatura Madrilen eta Espainian ezagutzera emateko plana egin, editoreen lankidetzaz, Espainiako Kultura Ministerioarekin hitzarmena eginaz.

1.4.3.b- Euskal arte eszenikoak Madrilen eta Espainian ezagutzera emateko plana egin, Eskenaren lankidetzaz, Espainiako Kultura Ministerioarekin hitzarmena eginaz.

1.4.3.c- Artearen nazioarteko sisteman eragile eta erabakitzaile nagusiak Euskadira gonbidatu eta euskal artearen ezagutzarako bideak eman.

1.4.3.d- Dantza garaikidean nazioarteko sisteman eragile eta erabakitzaile nagusiak Euskadira gonbidatu eta euskal dantza garaikidearen ezagutzarako bideak eman.

1.4.4- Euskal film luze nahiz laburrak munduratzeko programak indartu.

1.4.4.a- Kimuak egitasmoa mantendu.

1.4.4.b- Europako hizkuntza ez hegemonikoetako zinemagintzaren GLOCAL sarea indartu.

1.4.4.c- Nanteseko Zinemaldian euskal leihoa mantendu.

1.4.4.d- Euskal filmak Frantzia eta Europan zabaltzeko interesa sustatu zabaltzaileen artean.

## 2. KONPROMISOA EUSKAL KULTURAREN IKUSGARRITASUNA AREAGOTU

|                     |   |   |
|---------------------|---|---|
| <b>2.1. ekimena</b> | <b>EUSKAL KULTURAREN EKOIZPENAREN PROZESUAN IKUSGARRITASUNAREN ARDURA TXERTATU</b>                            |   |
|                     | 2.1.1- Ekoizpenetarako deialdietan, gizarteratzeko eta merkaturatzeko planak exijitu.                         | Ikus. 1.2.2. eta 1.2.3.   |
| <b>2.2. ekimena</b> | <b>SARIEN ERAGINA AREAGOTU, PUBLIZITATEAZ</b>   |   |
|                     | 2.2.1- Euskadi Sariak indartu, liburu irabazleen publizitatea eginaz.   | 2.2.1.a- Liburu sarituen publizitatea egin.<br>2.2.1.b- Sari (nagusi)en ingelesezko laginak eLiburutegian eskaini.<br>2.2.1.c- Ilustrazioaren Euskadi Sariari txirringularitzako Itzuliaren afixa enkargatu.  |
|                     | 2.2.4- Jaurlaritzak, elkarteek eta Jaurlaritzaren ardurapeko erakunde publikoek emandako sariak ordenatu.     | 2.2.4.a- Sarien mapa egin, lehentasunak erabaki, komunikazioa hobetu.   |
| <b>2.3. ekimena</b> | <b>EUSKAL KULTURAREN AZOKEN ETA JAIALDIEN SISTEMA EGONKORTU, ETA EUSKAL SORTZAILEEN PARTE-HARTZEA BERMATU</b> |   |
|                     | 2.3.1.- Durangoko Azokaren finantziakia mantendu.   |   |
|                     | 2.3.2.- Liburu azoken eredia aztertu, berritu eta azoken mapa zehaztu.  | 2.3.2.a- Azoken mapa egin. Sailkatu. Ezaugarriak definitu.<br>2.3.2.b- Azoken eraginkortasuna areagotzeko proposamen berriak bildu eta gauzatu.<br>2.3.2.c- Laguntza izenduna duten azoka eta jaialdien eragina neurtzeko adierazleak definitu.   |
|                     | 2.3.3.- Arte Eszenikoen Euskadiko azoken mapa indartu eta osatu.  | 2.3.3.a- dFERIAN eta Umore Azoka Leioa azokan euskal ekoizpenen parte-hartzea bermatu.<br>2.3.3.b- Euskarazko antzerkigintzaren erreferentziazko azoka bultzatu.  |
|                     | 2.3.4.- Euskadiko jaialdi eta zirkuitoetan euskal sortzaileen presentzia bermatu.                             | 2.3.4.a- 4.5.2.a- EZAE (Euskadiko Zine Aretoen Elkarte)rekin euskal zinemaren eta euskarazkoaren pantailaratzea bermatu.<br>2.3.4.b- 4.5.2.b- Kultura Live (musika aretoen elkarte)ren bidez, Euskadiko musika aretoetan euskal musikarien presentzia bermatu.<br>2.3.4.c- Euskal sortzaileen gutxieneko parte-hartzea hitzartu jaialdi eta zirkuito guztietan. |

---

## 2.4. ekimena

### KULTURAREKIKO EZAGUTZA ETA ZALETASUNA ZABALDU

---

2.4.1.- Jaurlaritzaren kultur eskaintzak eta zerbitzuak ezagutzera eman, komunikazioa eta publizitatea indartuz.

2.4.1.a- Kulturklik, Euskadiko kultura agenda nagusia garatu eta ezagunagoa egin.

2.4.1.b- eLiburutegiaren publizitatea sistematikoki egin.

2.4.1.c- EMSIME ezagutzera eman.

2.4.1.d- Kultura Ondarea Sariaren inguruko komunikazioa eta publizitatea bermatu.

2.4.1.e- Kultura Sailburuordetzako Zuzendaritza bakoitzean urteroko balantzea egiteko ohitura ezarri, komunikatzeko xedearekin.

2.4.2.- Hedabideen, eta bereziki EiTbren ardurakidetasuna areagotu eta egituratu kulturaren hedapenean.

2.4.2.a- EiTbN, Kultura Flash eta kulturarako iragarki berezien eskaintza eguneratu eta hedatu.

2.4.2.b- EiTbN, kulturari buruzko programak eta erreportaiak bermatu.

2.4.3.- Irakurzaletasun Plana burutu eta aplikatu.

2.4.3.a- Euskadin, irakurzaletasuna bultzatzeko dauden ekimen guztien mapa burutu.

2.4.3.b- Praktika egokiak ezagutarazi, partekatu eta sendotu. Egiteke daudenak identifikatu.

2.4.3.c- Erakunde eta eragile guztien artean adostutako plana definitu eta aplikatu.

2.4.4.- Publiko berriak erakartzeko eta kulturaren publikoak aktibatzeke egitasmo berritzaileak sustatu. Publiko berrien aktibazioa berrikuntza sustatzeko politiketan txertatu.

2.4.4.a- Sortzaileekiko lan-ildoetan, publikoak fidelizatzeko eta erakartzeko egitasmoak exijitu.

2.4.4.b- Publiko berrien deialdia berrikuntzarako politiketan txertatu.

---

### 3. KONPROMISOA BERRIKUNTZA SUSTATUZ, KULTURA ETA SORMEN INDUSTRIAK INDARTU

| 3.1. ekimena  | KSletarako GOBERNANTZA MOLDEA EGITURATU  |  |
|---|--|--|
| 3.1.1- KSletarako politikak SPRIrekin eta Innobasquerekin adostu eta lankidetzan garatu.                  | 3.1.1.a- Kulturaren Sustapenerako Zuzendaritzaren, SPRIren eta Innobasqueren arteko lankidetzeta egituratu.  |  |
|   | 3.1.1.b- Berrikuntza ez teknologikoaren definizioa eta aplikazio esparruak zehaztu.  |  |
| 3.1.2- Basque DC2 Euskadiko Sormen eta Kultur Barrutiaren egitasmoa abiarazi, zerbitzu berriak eskainiz.  | 3.1.2.a- Egitasmoa adostu.   |  |
|   | 3.1.2.b- Distritoa antolatu: lan-taldea sortu, enpresak erakarri, funtzioak definitu.  |  |
|   | 3.1.2.c- Zerbitzu berriak definitu, abiarazi eta sektoreari ezagutarazi.   |  |
| 3.1.3.- Euskadiren, lurralde eta hiri bakoitzaren espezializazio aukerak identifikatu eta mapa antolatu.  | 3.1.3.a- KSletako azpisektoreen artean lehentasunak definitu.  |  |
|   | 3.1.3.b- Espezializazio mapa zehaztu eta adostu, lurraldeekin eta hiriekin.  |  |
| 3.2. ekimena  | KSI SEKTOREAN BERRIKUNTZA SUSTATU  |  |
| 3.2.1 KSI sektorerako diru-laguntza tresnak berrantolatu eta indartu, Berrikuntza eta I+G+b-n oinarrituz. | 3.2.1.a- KSlen sektorean, eta bereziki kulturaren alorrean, berrikuntza definitu eta berrikuntzaren adierazleak zehaztu.   |  |
|   | 3.2.1.b- Sormen lantegien inguruko programak, eta publiko berriak aktibatzeke deialdia eraberritu, berrikuntzaren ikuspegia txertatuz.                                     |  |
|   | 3.2.1.c- Berrikuntza teknologikorako, kudeaketaren berrikuntzarako eta finantziazioa hobetzeko programak garatu, teknologia zentroen, Euskaliten eta Elkargiren laguntzaz. |  |
|   | 3.2.1.d- KSIAtea nazioarteratzeko programa, garatu, Tabakaleraren lankidetzarekin.   |  |
| 3.2.4- RIS <sup>3</sup> ko eremuen arteko gurutzaketa sustatu.  | 3.2.4.a- Deialdietan eta diru-laguntzetan gurutzatutako egitasmoen lehentasuna eman.   |  |
|   | 3.2.4.b- Sektoreen arteko gurutzaketarako topaguneak antolatu.   |  |
| 3.3. ekimena  | SEKTOREAREN ANTOLAKUNTZA SENDOTU   |  |
| 3.3.1- KSlen inguruko Europako programetan parte hartu.   | 3.3.1.a- CREADIS <sup>3</sup> programa burutu.   |  |
|   | 3.3.1.b- Europako programa berrietan parte hartu.  |  |
| 3.3.2- Pilotaje taldeak eraginkorragoak egin, enpresen parte-hartzea areagotuz.                           |  |  |

# Kultur eskaintza

## 4. KONPROMISOA KULTURA GIZARATERATZEKO SISTEMA PUBLIKOAK SENDOTU

### 4.1. ekimena LIBURUTEGIEN SISTEMAREN BATERATASUNA ETA BERRIKUNTZA SUSTATU

|  |  |
|--|--|
| 4.1.1.- Irakurketa Publikoaren Euskadiko Sarea osatzen jarraitu. | 4.1.1.a- Foru Aldundietako liburutegiak sarean integratu.  |
|  | 4.1.1.b- Unibertsitate liburutegiak eta liburutegi espezializatuak sarean integratu.   |
|  | 4.1.1.c- Arte gunetako liburutegi espezializatuak ehuna antolatu eta sare nagusian integratu.  |
|  | 4.1.1.d- Liburutegietako Aholku Batzordea abian jarri, berrikuntzarako eta gizarte kohesiorako lan-ildoak zehazteko xede nagusiarekin. |

### 4.2. ekimena eLIBURUTEGIA GARATU, EZAGUTARAZI ETA EDUKI BERRIEZ HORNITU

|  |   |
|--|---|
| 4.2.1.- eLiburutegiaren funtsak literaturaz hornitu.                                 | 4.2.1.a- Urtero liburuak erosten jarraitu. Prozedurak erraztu.  |
|  | 4.2.1.b- Audioliburuak sustatu, HPSrekin lankidetzan.   |
|  | 4.2.1.c- eLiburutegian irakurleen komentarioak integratu. (komunitateak sortu)  |
| 4.2.2.- eLiburutegiaren funtsak zinemaz hornitu.                                     | 4.2.2.a- Filmeen eskaintza egokitu, eLiburutegiaren eskaintza bereziaren balioa identifikatu, eta euskal zinemaren inguruko apustua sendotuz. |
|  | 4.2.2.b- Euskadiko Zinemaldien lankidetzan gauzatu, edukietan eta gomendioetan.   |
| 4.2.3.- eLiburutegiaren funtsak musikaz hornitu.                                     | 4.2.3.a- Musika eskaintza definitu, antolatu eta egikaritu.   |
| 4.2.4.- eLiburutegiaren erabilgarritasuna, komunikazioa eta publizitatea ahalbidetu. | 4.2.4.a- eLiburutegiaren ataria erabiltzearentzat erakargarriagoa egin, parte-hartzaileagoa eta pertsonalizatuagoa.                           |
|  | 4.2.4.b- eLiburutegiaren komunikazioa eta publizitatea modu jarraituan egin.  |

### 4.3. ekimena ANTZOKI SAREAREN EUSKAL ARTE ESZENIKOEKIKO LOTURA ERAGINKORRAGOA EGIN

|  |
|--|
| 4.3.1.- Dantza ikuskizunen presentzia areagotu sarearen programazioan.     |
| 4.3.2.- SAREA hobeto ezagutarazteko publizitatea eta komunikazioa sendotu. |

### 4.4. ekimena MUSEOEN EUSKAL SISTEMA SENDOTU, LEGEA GARATUZ ETA BABESA EGONKORTUZ

|  |   |
|--|---|
| 4.4.1.- Museoen Legea garatuz, museoek euskal sistemaren egituraketan sakondu. | 4.4.1.a- Interes Nazionaleko Museoen zerrenda erabaki eta hitzartu.                                       |
|  | 4.4.1.b- Euskadiko Museoen zerrenda erabaki, irizpideak zehaztu, eta deialdietan aukera bereziak eskaini. |
|  | 4.4.1.c- Museoen Aholku Batzordearen eginkizunak indartu.   |
|  | 4.4.1.d- Euskadiko Etnologia Museoen mapa osatu.  |
|  | 4.4.1.e- Ondare industrialaren gordailua egonkortu eta gizarteratu.                                       |

### 4.5. ekimena EUSKADI MAILAKO ERAGINA DUTEN JAIALDIAK ETA ZIRKUITOAK SUSTATU

|  |  |
|--|--|
| 4.5.1. Euskadi mailako jaialdi eta zirkuito erreferenteak sendotu. | 4.5.1.a- Jaialdien deialdia eguneratu.   |
|  | 4.5.1.b- Jaialdi eta zirkuitoetan Jaurlaritzari dagozkion laguntzak erabaki (HAKOBAn). |
|  | 4.5.1.c- Musika zirkuitoak egonkortzeko modalitate berria sortu musikarako deialdian.  |

**5. KONPROMISOA**

**NAZIOARTEKO ERAGINA DUTEN AZPIEGITURA KULTURALEN GARAPENA  
AHALBIDERATU ETA BERAIEI ERAGIN "TRAKTOREA" AREAGOTU**

**5.1. ekimena**

**NAZIOARTEKO PROIEKZIOA DUTEN MUSEOEN EUSKAL SISTEMA SENDOTU ETA HAREN ERAGIN  
"TRAKTOREA" AREAGOTU**

|   |   |
|---|---|
| <p>5.1.1- Guggenheim Bilbao Museoaren funtzionamenduaren bikaintasuna bermatzeko eta bilduma osatzeko ahalmena ziurtatu.</p>  | <p>5.1.1.a- Guggenheim Bilbao Museoaren funtzionamendurako finantzazioan 2009ko mailara heldu.</p> <p>5.1.1.b- Guggenheim Bilbao Museoaren bildumarako baliabide ekonomikoak berreskuratu.</p> <p>5.1.1.c- Argitalpenak euskaraz egiteko egitasmoari eutsi. Ezagutzera eman. Hedatu.</p> <p>5.1.1.d- Museoaren hedapena aztertu eta erabaki.</p> <p>5.1.1.e- Guggenheim Bilbao Museoaren genero berdintasunerako konpromisoa gauzatu.</p>   |
| <p>5.1.2- Bilboko Arte Ederren Museoaren birmoldaketa eta funtzionamenduaren bikaintasuna ahalbidetu.</p>   | <p>5.1.2.a- Bilboko Arte Ederren Museoaren birmoldaketa eta zabalkuntzarako baliabideak eman.</p> <p>5.1.2.b- Bilboko Arte Ederren Museoan artearen dokumentazio eta ikerketa zentru nagusia antolatzeke baliabideak ipini eta gainerako museoekin sarea antolatu.</p> <p>5.1.2.c- Bilboko Arte Ederren Museoaren bilduma osatzeko baliabide ekonomikoak berreskuratu.</p> <p>5.1.2.d- Bilboko Arte Ederren Museoaren euskararekiko eta hizkuntza berdintasunarekiko konpromisoa zehaztu eta gauzatu.</p> <p>5.1.2.e- Bilboko Arte Ederren Museoaren genero berdintasunerako konpromisoa gauzatu.</p> |
| <p>5.1.3.- Artium Museoarekiko Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa sendotu, Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa izateko eginkizuna goren mailan betetzea, eta nazioarteko hedadura duten museoaren euskal sistemaren baitan indartsuago jotzea ahalbidetuz.</p> | <p>5.1.3.a- Artiumerako adostu zen egitasmoa garatzeko, museoaren bizitasuna eta nazioartekotasuna sendotzeko eta bere bilduma zabaltzeko baliabideak bermatu.</p> <p>5.1.3.b- Artiumen bilduma aberastu, Jaurlaritzaren arte bildumaz, Gure Artea bildumaz bereziki.</p> <p>5.1.3.c- Artiumen jardunean euskararekiko eta hizkuntza berdintasunarekiko konpromisoa gauzatu.</p> <p>5.1.3.d- Artiumen genero berdintasunerako konpromisoa gauzatu.</p>  |
| <p>5.1.4- Cristóbal Balenciaga Museoaren nazioarteko eragina eta modaren sektorea egituratzeko eginkizuna ahalbidetu.</p>   | <p>5.1.4.a- Cristóbal Balenciaga Museoaren lantaldea zabaldu.</p> <p>5.1.4.b- Cristóbal Balenciaga Museoaren eta nazioarteko erreferenteen arteko lotura sustatu.</p> <p>5.1.4.c- Cristóbal Balenciaga Museoaren moda sektorearen berrikuntzarako eta garapenerako erreferente bihurtu.</p> <p>5.1.4.d- Cristóbal Balenciaga Museoaren euskararekiko eta hizkuntza berdintasunarekiko konpromisoa zehaztu eta gauzatu.</p>  |
| <p>5.1.5- Donostiako Tabakaleraren garapena ahalbidetu.</p>   | <p>5.1.5.a- Lantaldea osatu.</p> <p>5.1.5.b- KSlekiko lan-ildoak erabaki eta sustatu.</p> <p>5.1.5.c- 2deko egitasmoa finantzatzen lagundu, Tabakaleraren eta Jaurlaritzaren politikitara egokituz.</p>   |
| <p>5.1.6- Chillida Lekuren bizitasuna, nazioartekotasuna eta gizartearekiko hurbiltasuna bermatzen lagundu.</p>   |   |

## 5.2. ekimena

### NAZIOARTEKO IZAERA DUTEN JAIALDIEN GARAPENEAN LAGUNDU

|  |  |
|--|--|
| 5.2.1- Donostia Zinemaldiaren garapenean lagundu, gainerako erakundeekin bat eginik.                   | 5.2.1.a- Donostia Zinemaldiaren nazioartekotasuna bermatu, kategoria horretan lehiatzeko baliabideak emanaz.<br>5.2.1.b- GLOCAL egitasmoa susutatu Zinemaldiaren plangintzaren barruan.  |
| 5.2.2- Donostiako Musika Hamabostaldiaren garapenean lagundu, ekoizpenerako aukerak emanaz.            | 5.2.2.a- Produkzioak egin ahal izateko finantziazioa bermatu.<br>5.2.2.b- Euskal musikariekiko ardura eta lankidetasuna sustatu.   |
| 5.2.3- Jazzaldiak sustatu Euskadiko hiru lurraldeetan, eta urte barruko jardunarekiko loturak indartu. | 5.2.3.a- Gasteizko Jazzaldiaren egonkortasuna bermatu.<br>5.2.3.b- Urtean barrena antolatzen diren jazz zirkuitoekin harremanak landu.<br>5.2.3.c- Jazzaldietan genero berdintasunerako konpromisoa definitu eta gauzatu.  |
| 5.2.4- Nazioarteko eragina duten gainerako jaialdiak diruz lagundu.                                    | 5.2.4.a- OLBEren etorkizuna bermatzeko, egitasmoa neurririk ekarri eta erakundeen arteko oreka bilatu.<br>5.2.4.b- Mendi Film Festival indartu, laguntza izendun batez.<br>5.2.4.c- Nazioarteko eragina duten (eta beraz, euskal sortzaileak nazioarteko sortzaileekin harremanetan jartzeko aukera duten) jaialdien iraunkortasuna bermatu. Alor guztietan. |

## 5.3. ekimena

### EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA NAZIOARTEKOTU ETA EUSKAL HERRIKO GAZTE ORKESTRA ERABERRITU

|   |   |
|---|---|
| 5.3.1- Euskadiko Orkestraren Nazioarteko proiektzioa sustatu. | 5.3.1.a- Bi urtean behin gutxienez nazioarteko programa bat burutzeko ahalbideak eskaini EOSari.<br>5.3.1.b- EOS ezagutzera eman Espainian, bira berezia antolatuz.<br>5.3.1.c- EOSen diskagintzarako ahalmena bermatu. |
| 5.3.2- Euskal Herriko Gazte Orkestra eraberritu eta indartu.  | 5.3.2.a- Eredua definitu eta kudeaketa ereduak aldatu, musikarako trebakuntza sisteman duen eginkizuna zehaztu.<br>5.3.2.b- EGO nazioarteko sareetan kokatu.  |



# Memoria bizia

## 6. KONPROMISOA EUSKAL KULTURAREN MEMORIA ZABALDU ETA BIZIBERRITU

|                     |  |  |
|---------------------|--|--|
| <b>6.1. ekimena</b> | <b>ARAUDIA EGUNERATU (APROBATU ETA INDARREAN JARRI)</b>  |  |
|                     | 6.1.1- Kultura Ondarearen Legea indarrean jarri.   |  |
|                     | 6.1.2- Euskadiko Dokumentu Ondarearen eta Artxibo Sistemaren Legea Gobernuan onartu, Legebiltzarrean adostu eta indarrean jarri. |  |
|                     | 6.1.3.- Kulturaren Lege Gordailuaren araudi berria onartu eta zerbitzuaren berrantolaketa gauzatu.                               |  |
|                     | 6.1.4- Euskal Kulturaren Liburutegi Digitala bideratzeko, 2007ko Liburutegien Legea garatu.                                      |  |
| <b>6.2. ekimena</b> | <b>ONDAREAREN BABESERAKO POLITIKAK EGUNERATU, ALOR BERRIETARA ZABALDUZ</b>   |  |
|                     | 6.2.1. Ondare higiezinaren babespena.  | 6.2.1.a- Babes arauak Lege berriari egokitu.<br>6.2.1.b- Ondarea higiezina babesteko diru-laguntzak ondare higikorrena eta industrialera zabaldu.<br>6.2.1.c- Ondarearen babeserako dokumentuak eta agiriak gizarte osoaren eskura jarri, modu irisgarriagoan. |
|                     | 6.2.2- Ondare higigarriaren babespena eguneratu.   | 6.2.2.a- EMSIME Museoen premia berriei egokitu eta Euskal Kulturaren Liburutegi Digitalean txertatu.<br>6.2.2.b- Jaurlaritzaren arte ondarearen katalogazioa burutu, hura zaintzeko barne-protokoloak adostu.  |
|                     | 6.2.3- Ondare higiezina, higikorra eta industrialera zaintzeko deialdia sendotu.   | 6.2.3.a- Oinarrizko inbentarioa egin.<br>6.2.3.b- Ondare Industrialaren Gordailua egonkortu, egoitza finkoa atondu, eta funtsak bisitagarri egiteko eta gizarteratzeko plana garatu.<br>6.2.3.c- Itsas ondarearen inbentarioa eta katalogazioa burutu.         |
| <b>6.3. ekimena</b> | <b>MATERIAGABEKO ONDAREA BABESTEKO ETA GIZARTERATZEKO POLITIKAK GARATU</b>   |  |
|                     | 6.3.1. Materiagabeko ondarea babesteko eta gizarteratzeko politika bereziak abiarazi.  | 6.3.1.a- Materiagabeko euskal ondarearen inbentarioa burutu, modu partekatuan.<br>6.3.1.b- Materiagabeko euskal ondarearen mapa burutu eta adostu.<br>6.3.1.c- Materiagabeko euskal ondarearen inbentarioko eta katalogaziorako irizpideak finkatu eta adostu. |
|                     | 6.3.2- Materiagabeko ondarearen babeserako deialdiak zabaldu.  | 6.3.2.a- Materiagabeko euskal ondarea babesteko eta gizarteratzeko deialdi konkurrentea sortu.<br>6.3.2.b- Materiagabeko euskal ondarearen lehen adierazpenak babestu: euskal dantzak, euskal ihauteriak, bertsolaritza...                                     |
|                     | 6.3.3- Materiagabeko ondarea kudeatzeko lantaldea sortu Zuzendaritzaren baitan.  | 6.3.3.a- Ondare Immaterialaren babesa kudeatzeko teknikari postua sortu Zuzendaritzan.   |

#### 6.4. ekimena MEMORIRAKO ERAKUNDEEN SISTEMA SENDOTU, ELKARLANA ETA BERRIKUNTZA SUSTATUZ

6.4.1- EAH (Euskadiko Artxibo Historikoa) garatu, etengabeko digitalizazioarekin eta agiritegi publiko eta pribatuen ekarpenekin.

6.4.1.a- Artxiboaren funtsak hornitu, digitalizatzen eta eskuragarri jartzen jarraitu.

6.4.1.b- Eusko Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren agiritegiak EHAn biltzeko eta zaintzeko aukerak landu eta adostu.

6.4.1.c- Euskadiko argazkigintzaren ataria antolatu, funtsak digitalizatuz, Euskal Kulturaren Liburutegi Digitalean txertaturik.

6.4.1.d- Agiritegi eta bilduma pribatuak Euskadiko Artxiboan jasotzeko ekimenak areagotu.

6.4.2- Eresbilen erreferentzialtasunean sakondu, bere lana gehiago gizarteratuz eta Euskal Kulturaren Liburutegi Nagusiaren egitasmoan txertatuz.

6.4.2.a- Euskadiko sorkuntza eta ekoizpen sonoro guztia gordetzen, ezagutzen eta gizarteratzen jarraitu.

6.4.2.b- Musikaren alorrean emakumeen presentzia, garrantzia eta eragina ezagutarazteko programak garatu.

6.4.2.c- Euskal Kulturaren Liburutegi Digitalaren musika funtsaz arduratu.

6.4.2.d- Eskena Arteen -eta batez ere dantzaren- memoriarako Atari Digitalean kolaboratu, artxiboan arteko eta Euskal Liburutegirako datuen bateratasuna bermatuz.

6.4.3- Euskadiko Filategia ikusentzunezko euskal ondarearen giltzarri bihurtu eta bere programazioa hiru hiriburueta hedatu.

6.4.3.a- Bizkaiko Foru Aldundiaren inkomporazioarekin, Fundazioaren egituratze instituzionala burutu.

6.4.3.b- Programazioa hiru hiriburueta zabaldu.

6.4.3.c- Euskal Liburutegiaren ikusentzunezkoen funtsaz arduratu.

6.4.3.d- Lege Gordailuaren ikusentzunezko funtsa zaindu eta kudeatu

6.4.3.e- Euskadiko Filategia nazioarteko sareetan txertatu (FIAC)

6.4.3.f- Filategiari euskal filmak zaharberritzeko ahalbideak eman

6.4.4- Arte Eszenikoen Memoriarako Gordailu Digitala sortu.

6.4.4.a- Definizioa zehaztu eta baieztatuz.

6.4.4.b- Atari digitala diseinatu eraiki eta Euskal Kulturaren Liburutegi Digitalarekin lotu.

6.4.4.c- Barreiatuta dauden bildumak atari digitalerako egokitu eta gaineratu.

6.4.4.d- Bildumak osatu eta digitalizatu.

#### 6.5. ekimena ONDAREA GIZARTERATU

6.5.1- Ondare Unibertsal izendatzeko egitasmoak garatu.

6.5.1.a- Errioxako ardoaren eta mahastiaren paisaia UNESCOk ondare unibertsalaren izendapena landu.

6.5.1.b- UNESCOk Bertsolaritza Munduko Ondare materiagabe izendatzea landu.

6.5.1.c- UNESCOk Donostiako Haize Orrazia Munduko Ondare izendatzea landu.

6.5.2- Ondarea aztertzeke eta gizarteratzeko programak mantendu.

6.5.2.a- Ikerketa eta argitalpenak lagundu.

6.5.2.b- Kultura Ondarea Saria europar proiektu bihurtu eta ezagunagoa egin.

**7. KONPROMISOA EUSKAL KULTURAREN LIBURUTEGI DIGITALA ERAIKI****7.1. ekimena EUSKAL KULTURAREN LIBURUTEGI DIGITALAREN ERREPOSITORIOA ETA PLATAFORMA SORTU**

7.1.1.- Euskal Kulturaren Liburutegi Digitalaren plataforma eraiki, Open Linked Data teknologian eta gainerako euskal atari digitalekin lankidetzan oinarrituta, Europeanarekin lotuta.

7.1.1.a- Arkitektura informatiko berria eraiki, Open Linked Data teknologian oinarritua eta euskal kulturaren alor ezberdinetan baliagarria izango dena.

7.1.1.b- Atariaren diseinua burutu, erabilgarritasuna ardatz harturik.

7.1.1.c- Ataria kultura alor ezberdinetara hedatu eta egokitu.

7.1.1.d- Europeanan euskal kulturaren erakunde agregatzaile bilakatu.

7.1.2.- Euskal kulturaren eduki digitalak kalitaterik handienean eta modu seguruan gordetzeko sistema parte-hartzailea garatu.

7.1.2.a- Errepositorioaren azpiegitura informatikoa EJI Erekina batera sortu.

7.1.2.b- Errepositorioa modu partekatuan elikatzeke protokoloak sortu.

**7.2. ekimena EUSKAL KULTURAREN LIBURUTEGI DIGITALAREN FUNTSAK KUDEATU**

7.2.1- Euskal Kulturaren Liburutegi Digitala alor guztietako funtsez hornitu eta funtsak eskuragarri ipini.

7.2.1.a- Dagoeneko digitalizatutako funtsak eskuragarri jarri, protokoloak eta eskubideak kudeatu ondoren.

7.2.1.b- Euskal Kulturaren digitalizazio osoa kudeatu eta burutu, plan zehatz baten arabera.

7.2.1.c- Digitalean sortutako euskal kulturaren agerpenak biltzeko, katalogatzeko eta eskura jartzeko protokoloak kudeatu.

**7.3. ekimena EUSKAL KULTURAREN LIBURUTEGI DIGITALAREN KUDEAKETA ETA KOORDINAZIO SISTEMA EGITURATU**

7.3.1- Zerbitzu berria sortu Euskal Kulturaren Liburutegi Digitalaren kudeaketarako, Kultura Ondarearen Zuzendaritzan.

7.3.1.a- Euskal Kulturaren Liburutegi Digitala kudeatzeko zerbitzua sortu Kultura Ondarearen Zuzendaritzan. 6 pax.

7.3.1.b- Euskal Kulturaren Digitalizazio Plana egin eta kudeatu.

7.3.2- Euskal Kulturaren Liburutegi Digitalaren koordinazioa indartu, funts digitalak kudeatzen dituzten gainerako eragileekin, ondare liburutegiak kudeatzen dituzten gainberako erakundeekin eta sektoreetako eragileekin.

7.3.2.a- Euskal Kulturaren Liburutegi Digitalan bestelako kultur funts digitalak kudeatzen dituzten beste kultur eragileekin koordinazioa indartu alorrez alor, (literaturan, zineman, musikan, irudietan, agiritan, etc).

7.3.2.b- Ondare liburutegien sistemarekin eta haien ardura duten erakundeekin koordinazioa eta osagarritasuna landu.

7.3.2.c- Liburutegi funtsen kudeaketa digitala koordinatzeko atal berezia sortu Liburutegi Aholku Batzordearen barruan.

## Gobernantza

| <b>8. KONPROMISOA ERANTZUNKIDETASUNEAN SAKONDU GOBERNANTZAREN ALOR GUZTIETAN: ORDENATU ETA PARTEKATU</b>                               |  |
|--|--|
| <b>8.1. ekimena</b>  | <b>ERAGILEEKIKO LANKIDETZA ETA ARDURAKIDETZA SAKONDU</b>   |
| 8.1.1.- Kultura sektorearen egituraketa indartu, sakabanaketa ekidin, elkartearen arteko koordinazio eta baterakuntza guneak antolatu. | 8.1.1.a- Sektoreen antolakundea berrikusteko, Kultura Auzolanean abiatu den prozesua burutu.<br>8.1.1.b- Musikan, Musika Bulegoaren (EHMBE) eredia sendotu.<br>8.1.1.c- Ikus-entzunezkoetan, elkarte profesionalak bateratu, eta EIKEN Clusterra indartzen lagundu.<br>8.1.1.d- Arte eszenikoetan, elkarte ugarien arteko koordinaziorako eta baterakuntzarako gune bakarra sustatu. |
| 8.1.2.- Antolatu gabeko sektoreen egituraketa bultzatu, ordezkariak sektorialeko organoen sorreran lagunduz.                           | 8.1.2.a- "Sortzaileen mahaia" sortu alor desberdinetako sortzaileen artean.<br>8.1.2.b- Ondarearen eremuan, eragile pribatuen antolakuntza eta egituraketa bultzatu.<br>8.1.2.c- Ikusizko arteen erakunde egituratzaile eta adierazgarri baten sorkuntza babestu.  |
| <b>8.2. ekimena</b>  | <b>KULTURAREN EUSKAL KONTSEILUA ETA "KULTURA AUZOLANEAN" PROGRAMA SENDOTU</b>  |
| 8.2.1.- Kulturaren Euskal Kontseilua berdefinitu eta indartu.  | 8.2.1.a- KEKarekin ordezkariak, parte-hartzea eta eginkizunak berdefinitu.<br>8.2.1.b- Kulturaren Euskal Kontseiluari, balorazio batzorde eta aholkularitza kontseiluetarako izendatutako pertsonak onartzeko ahalmena eman.   |
| 8.2.2.- Kultura Auzolanean dinamizari jarraipena eman.   | 8.2.2.a- Kultura Auzolaneaneko egungo faseari amaiera eman, XI. Legealdian martxan jarritako proiektuen balorazioa eginez. Horien itxiera edo jarraipena baloratu.<br>8.2.2.b- Hurrengo legealdian landu beharreko proiektuen gaitzerrenda adostu.<br>8.2.2.c- "Kultura Auzolanean" programan egindako azterketa eta txostenen hedapena eta komunikazioa hobetu.                     |
| <b>8.3. ekimena</b>  | <b>HAKOBA INDARTU, HERRI ADMINISTRAZIOEN ARTEKO KOORDINAZIOA AREAGOTZEKO</b>   |
| 8.3.1.- HAKOBAREN funtzionamendua arautu eta formalizatu, erakundearen arteko koordinazioa ezinbesteko bihurturik.                     | 8.3.1.a- HAKOBAN lantzeko, eztabaidatzeko eta erabakitzeko gaiak legealdi osorako nahiz urte bakoitzerako adostu eta erabaki.<br>8.3.1.b- HAKOBA marka sortu, haren ekimenez sortzen diren ikerketa, hausnarketa edo egiasmoetarako.   |
| 8.3.2.- HAKOBAK abian dituen proiektuak burutu eta indarrean jarri.  | 8.3.2.a- Arte guneetan genero berdintasunerako plan nazionala burutu eta indarrean jarri.<br>8.3.2.b- Irakurketa sustatzeko plan nazionala adostu eta abian jarri.<br>8.3.2.c- Sortzaileen ordainketa duinerako plan nazionala eraiki eta abian jarri.   |

| 8.4 ekimena   | SAILAREN BAITAKO ETA SAILEN ARTEKO KOORDINAZIOAN SAKONDU   |  |
|---|--|--|
| 8.4.1- Sailburuordetzaren lantaldea sendotu, bi zuzendaritzak espazio bakarrean bildu eta barne egituraketa egungo premiei eta lan-moldeei egokitu. Sailburuordetzaren jarduna modu ordenatu eta jarraikorrean gizarteratu. | 8.4.1.a- Kultura Sailburuordetzako zuzendaritza guztiak (sustapena, ondarea eta behatokia) bulego bakarrean bildu, zeharkako lana, koordinazioa eta eraginkortasuna ahalbidetzeko. | 8.4.1.b- Zerbitzuen eta lantaldeen arteko ezagutza, lankidetasuna eta osagarritasuna areagotu. Barne nahiz kanpo komunikaziorako materialak adostu eta partekatu.  |
|   | 8.4.1.c- Alorrez alor, urteko balantzea egiteko metodologia ezarri, memoriak eta datuak emanaz, komunikazioaren ikuspuntutik.  | 8.4.1.d- Lantaldeak osatu eta belaunaldi berrien ordezkapenaren unea prestatu. Sustapenean, juridikoaz eta nazioartekotzerako teknikariaz, eta Ondarean, Museoen Zuzendaritzako lantaldea osatuz eta Euskal Liburutegiaren zerbitzua integratuz. |
| 8.4.2- Sailaren baitako koordinazioan eta osagarritasunean sakondu.   | 8.4.2.a- Hizkuntza Politikaren eta Etxepare Euskal Institutuaren programa parekideak alderatu, ordenatu eta partekatu.   | 8.4.2.b- Nazioartekotasuna suspertzeko ahaleginetan, Etxepare Euskal Institutuari eta Kultura Sailburuordetzari dagozkienak zehaztu, bereizi eta koordinatu.   |
|   | 8.4.2.c- Euskal kulturarako BASQUE. marka indartu, nazioarteratzeko lan ildoak markari egokituz.   |  |
| 8.4.3- Jaurlaritzako beste Sailekiko lankidetzaz zeharkakoan sakondu.   | 8.4.3.a- Jaurlaritzaren baitako koordinazioa hobetzeko eta heritarrekiko transparentzia zaintzeko ekimenetan lankidetasuna hobetu.   | 8.4.3.b- "Euskadi Basque Country" markarekiko koherentzia eta koordinazioa areagotu.   |
|   | 8.4.3.c- Jardun profesionalaren aitorten akademikoa definitu eta gauzatu, Hezkuntza Sailarekin.  | 8.4.3.d- Irakurzaletasuna sustatzeko plana Hezkuntza Sailarekin garatu.  |
|   | 8.4.3.e- Ikastetxeetan sortzaileen egoitzak sortzeko egitasmoa Hezkuntza Sailarekin garatu.  | 8.4.3.f- Kulturaren sektorea onartu Lanbideren programetan, Gizarte Zerbitzuen Sailarekin lankidetzan.   |
| 8.5. ekimena  | EZAGUTZA POLITIKAK KULTUR POLITIKEN MUINEAN IPINI  |  |
| 8.5.1- Kulturaren Behatokiaren eginkizun eremua zabaldu eta estatistika lanak maizago egin..  | 8.5.1.a- Behatokiaren lan-eremua Kultur Ondarearen alorrera zabaldu.   | 8.5.1.b- Behatokiaren ikerketa-eremua KSlen alorrera zabaldu.  |
|   | 8.5.1.c- Kultur Ohituren inguruko lan estatistikoa 5 urtetako ziklora ekarri.  |  |
| 8.5.2- Kulturaren Behatokiaren ekarpena ezagutarazi eta erreferentzialtasunean sakondu.   | 8.5.2.a- Adituen eta oro har, Europako behatokiaren ezagupena eta aitormena lortu. Ingeleseko laburpenak erantsi txosten eta ikerketa guztiei. Sareetan hedatu.                    | 8.5.2.b- Behatokiaren ezagutza eta erreferentzialtasuna euskal gizartearen hedatu, eginkizunen eta egindakoen berri emanaz.  |
|   | 8.5.2.c- Lehendakaritzako ikerketa eta azterketarako zerbitzuarekin komunikazioan eta koordinazioan sakondu.   |  |
| 8.5.3- Behatokiaren lantaldea indartu.  | 8.5.3.a- Lantaldea osatu, barruko nahiz kanpoko lankideez.   | 8.5.3.b- Kultura sailordetzarekiko gertutasuna bermatu, operatiboa zein fisikoa.   |

**HIZKUNTZA BERDINTASUNA BERMATU, EUSKARAZKO SORKUNTZA ETA EKOIZPENA LEHENETSIZ, ETA EUSKARAREN ERABILERA BULTZATUZ KULTURA EKIPAMENDU GUZTIETAN**

Zeharkako egitasmoa izanik, aurrekontuaren partida guztietan eragiten du.

**GENERO BERDINTASUNA AITZINARAZI, SORKUNTZAN ETA EKOIZPENEAN ETA KULTIUR EKIPAMENDUETAN**

Zeharkako egitasmoa izanik, aurrekontuaren partida guztietan eragiten du.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAIALA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGUISTICA



**KULTURA**  
**PLANA**

**19/**  
**22**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA